



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO JAI GUZTIAK

Abuztuko jaietako egitarau guztiak gehigarri berezian; Altzon hasi eta Berrobin amaituko dira festak gurean >I-XVI

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2010-07-25

VIII. URTEA 2.061. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Udal ordezkariak eta politikariak inaugurazio ekitaldian, herriko haurrekin batera. E. MAIZ

BALIARRAINEN AISIALDIRAKO EGOKITU DUTE PLAZA BERRIA

AZPIEGITURAK Inaugurazio ekitaldian herriko alkatea, Dorronsoro, eta besteak beste Gipuzkoako Ahaldun Nagusia, Olano, egon dira 7



Atzo hasi ziren Santio jaiak Villabonan. E. MAIZ

San Inazioak iritsi bitartean atsedetik gabeko jaiak

VILLABONA Eresargikoez eman diote hasiera Santio jaiak; estropadak ere izan dira 6

argazki lehiaketa

h

XII. HITZA
Argazki
Lehiaketa
Animatu eta
parte hartu!

**NORA
BIDALI?** argazkiak@tolosaldecohitzza.info helbide elektronikora
Irailak 30 arte

HITZA udarako argazki lehiaketa

IRY ALDETA EDARITEGIA

**Gauean
12:00tatik
aurrera
DJ BULL**

Berria, 15 - Villabona Telf.: 943 69 09 41



Lan-taldearen udako oporraldia dela-eta TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA ez da uztailaren 27tik irailaren 1a arte argitaratuko.

Orduan izango gara berriro ere zuekin

hitza info

K Komikia

Gorka Salaberria



2010=1984



» Uzturretik

Eneritz Otamendi

Aspaldi irakurri nuen, Ikastolan Mikel Intsausti irakasleari hainbestetan entzundako eleberria eta zorritzarez gehiegitan etortzen zait gogora. Aste honetan ere bai. Egiaren ministerioan lan egiten dutenek lan handi xamarra hartu dute Arnaldo Otegi gure pentsamenduetatik ezabatu nahian badabilta, alajaina! 4600 lagun gehiegitxo zirela iritzitadedo, Pentsamenduaren poliziak bigarren aldiz ezabatu du Arnal-

dinhoren facebook-eko profila, inolako azalpenik eman gabe. Noraino baino? Antzekotasun gehiegi 2010ekoa eta 1984rako George Orwelllek irudikatutako gizartearen artean.

Aspaldian hasiak dira hitzekin jolasean, hauen esanahia itxuraldatzen, hiztegitik kentzea akaso hurrengo urratsa, gure gogametik kentzeko beste biderik ez eta! Independentzia, errepresioa, elkartasuna, dispersioa, askatasu-

na, tortura... kenduko ote dituzte? Izenik ez duenak izanik ez duenaren uste sendoaz. Euskaldun gehiegik zapaldu dute ordea 101gela, torturaren gela alegia, berriak ere sinesten ez dituzten gezurrak egi bihurtu nahian, eta hori ez daukagu ahazteko!

Iraganari begira ezin gara bizi, egia da, baina iragana hor dago. Memoria historikoa oso pieza garrantzitsua da herri honen askapen borrokan, Maravillas Florencia de Larraga, Rosa Zarra, Angel Berroeta, Remi... lau adibide mingots, milaka eta milaka dira ordea! Saiatuko dira bai, Egiaren Ministe-

rioarentzat lanean diharduten Pentsamenduaren poliziak Arnaldoren aurpegia aurpegien liburutik kentzen, ez alferrik. Guk maravillasen abestia entzungo dugu, Remiren liburua irakurriko dugu eta Arnaldori milaka karta bidaliko dizkiogu, Logroñoko paretak grisak kolorez eta maitasunez betetzeko. Eta Villabonako jaietan primeran pasako dugu, afari earrak ematen dituztelako, Mikel Ayesta berriz etxean delako, Remi alaitasunez oroitu nahi dugulako, alaitasunak osasuna eta askatasunarekin erri-matzen duelako eta Euskal Herria ZUTIK dagoelako! Remi gogoan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitz.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



Espainiako txapelketan Tolosako Igarondo Urpekoak taldeko kideak. HITZA

Domina zaparrada

Tolosa » Igarondo Urpekoak taldeko kideek domina ugari lortu zituzten Espainiako txapelketan, Alacanten.

ERREDAKZIOA

Iragan asteburuan, Torreveijan ospatu zen Espainiako Hegats igeriketa txapelketa. Igarondo Urpekoak taldeko 15 igerilari egon ziren Alacanten, eta emaitza bikainak lortu zituzten: 11 domina. Talde lana azpimarratu dute protagonis- tek, 10 igerilari dominarekin etorri baitziren.

50m ur azpiko proban, Patxi Monge eta Mara Varela urrezko domina lortu zuten.

100m eskafandran berriz, Mongek lehen postua errepikatu zuen. Nesken artean, Amaia Arregi izan zen garailea. Juniorretan Inge Zubeldiak jantzi zuen urrezkoa.

400m eskafandran Amaia Arregi berritxo urrezko domina lortu zuen. Mutiletan Gregorio Mancidorrek eman zuen ezuztekoa, brontzezko domina lortuz.

Arregik 800m eskafandran zilarrezkoa lortu zuen, txapelketa izugarria osatuz. Mara Varela 100m ur gainetik proban, brontzezkoa lortu zuen.

Aipagarria da neskek erreleboetan egin zuten lana: 4X200 eta 4X100eko probetan zilarrezko dominak ekarri zituzten etxera. Proba luzean Leire Gardeta, Nere Karrera, Leire Ramirez

eta Mara Varela hartu zuten parte, eta proba motzean Leire Ramirez eta Mara Varela errepikatu zuten, Ainhoa Tolosa eta Amaia Arregi- rekin batera. Talde lana gogor egin zutenak, Jokin Zubizarreta (bilau- garren postu lortu zituen), Asier Aranburu eta Maria Ortega izan ziren, baita Mikel Esteban eta Maitane Tolosa ere.

Errusiara bidaia

Lan guzti honen oparia, batzuk as- teburu honetan jasoko dute. Euro- pako txapelketa jokatu dute Errusian. Mara Varela eta Patxi Monge tolosarrak bertan egongo dira. Jon Espina entrenatzailea ere bertara joango da, Ainhoa Tolosa delegatuarekin batera. Zortea opa diegu!

Gutunak

Iurreamendi zahar egoitza, gaueko erizaintza txanda kendu dute

Zahar etxe batean sartzen diren aiton- amona gehientsuenak, ezin bestekoa suertatzen zaielako hartzen dute erabakia, behar izaten dituzten laguntzak: jateko, janzteko, garbiketarako... modurik egokienean bere etxeetan jaso ezin dituztelako.

Gaur egun dagoen erresidentzi plaza kopuru eskasa dela eta Dipu- tazioak, itxaron zerrendatan dau- den pertsonen artean, laguntzarik handiena behar dutenei eskain- tzen dizkie bakarrik. Gainontze- koei, beraien etxean mantendu di- tezen, haiei eta haien senideei la- guntza ezberdinak eskaintzen dizkielarik.

Aipatutako arrazoiengatik, erresidentzi guztietan eta Iurrea- mendin ere bai, jasotzen ari diren ingreso eskaerak, ezaugarri hau izaten dute: menpekotasun han- dia edukitzearena; eguneroko oi- narrizko beharretarako laguntza handia eta erizaintza zerbitzu za- bala behar izaten dutenena. Iurrea- mendin, dauden aiton- amonen %71 (101 pertsona) menpekotasun handia dutenak dira. %20 (29 per- sona) menpekotasuna dutenak eta %9 (13 pertsona) soilik, menpe- kotasunik ez dutenak.

Iurreamendi egoitzak, 143 plaza eskaintzen ditu (Clínica Asuncion bera baino handiagoa da). Aipatu- tako egoiliarren perfilaren tenden- tziari begiraruta, ospital baten an- tza, gero eta handiagoa du.

Honetaz konturatuturik, badira hilabete batzuk, OSAKIDETZAK Iurreamendirako, erabateko dedi-

kazioa eskainiko zion medikua jar- tzearen beharra ikusi zuela. Ordu- ra arte, beste lan batzuetan ere ari- tzen zen medikua ordezkatuz.

Egoera, inork baino hobeto eza- gututa ere, Iurreamendi egoitzako juntako lehendakari den Jokin Bil- darratz- ek eta bertako Zuzendaria den Elena Basagoitiak, oraindano martxan zegoen gaueko erizainen zerbitzua kentzea erabaki dute. Bertan bizi eta biziko diren aiton- amonen beharrei muzin eginez, egin zaizkien iradokizunei kasurik ez eta bozketarik ere egin gabe (juntan hartzen diren erabaki guz- tiei dagokien moduan), horren- besteko garrantzia duen zerbitzua kentzea erabaki dute. Erresiden- tziaren egoera ekonomikoa eta Gi- puzkoako Foru Aldundiak zehazten dituen irizpideetan oina- rritutako erabakia dela, argudiatu- ta.

Murrizketa honek, erizaintza zerbitzuaren kalitatean zuzenean eragingo du: Aiton- amonen eta haien senideen inseguritate sen- tsazioa handituko du, ospitaletara- ko trasladoak biderkatuko dira.

Behar lukeen lekuan, Iurrea- mendiko juntako bileran, gaia ez- tabaidatzeko aukerarik ematen ez zaigunez, besteak beste Juntako lehendakariaren jarrera autorita- rioarengatik, sinatzen dugunok: juntako kideak, erresidentziako langileak eta Zahartzaro duinare- aldeko plataformako kideak, kom- unikabideak baliatu nahi ditugu, tolosarrei egoeraren berri emate- ko.

Floren Altuna eta Enrique Torquemada (Juntako Kideak), ELA eta LABeko langileak eta Zahartzaro Duinarene aldeko Plataforma. Tolosa.

AHTren inguruan informaziorik gabe jarraitzen dute Hernialden

Azpiegiturak » Proiektu konstruktiborik gabe aurkitzen da Udala, alegazioak jartzeko aukerarik gabe.

ASIERIMAZ

AHTren Tolosa- Hernialde zatia- ren lizitazioa ireki zuten duela as- tebete. Urrats horren aurretik or- dea, oinarritzko proiektua eta

proiektu konstruktiboa kaleratu behar dira. Bi proiektu hauekin ados ez dagoenak, 20 eguneko epea izango du alegazioak sartzeko. Tolosako AHTren informazio bulegoak oraindik ez dauka zati honen inguruko proiektu kons- truktiboa. Hernialdeko Udaletik azaldu dutenez, oinarritzko proiekturik ere ez dute jaso. Alega- zioak sartzeko edo herritarrei kal- tetuak diren edo ez azaltzeko au- kerarik gabe, egoera «lotsagarria»

dela azaldu dute Udaletik. Galdez- ka joaten zaizkien herritarrei zer esan ez dakitela ibiltzen dira, ez baitute proiektu konstruktiborik. Eusko Jaurlaritzako Garraio saila- rekin harremanetan iaz jarri omen ziren, baina oraindik erantzuna- ren zain jarraitzen dute.

Garraio sailako komunikazio ar- duradunaren esanetan, oinarritzko proiektua «anexo» batean bidali zitzaizen iaz, konstruktiboaz berriz, ez dute ezer aipatu.



Tolosako Iurreamendi egoitza. HITZA

Gidariak behar dira dokumentazioa eta baliag- banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.


610-71 97 82

Lan publikoetarako zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenurako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

Telefonistak/harreragileak behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Osingoienerako etxebizitzak prest aurkitzen dira. Inguruan urbanizazio lanak egiten ari dira. A. IMAZ

Osingoienerako etxebizitzak amaiturik

Gaztelu» Besteak beste udaletxea birmoldatu ondoren, laster proiektu berriak abian jarriko ditu Gazteluko Udalak.

ANESANZ

Badira hiru urte Itturraundi Gazteluko udaletxera heldu zenetik. Patxi Iturriaga alkateak azken hiru urteetan burututako proiektuak eta UEMAN sartu izana azaldu ditu.

Etorkizunera begira dituzten asmoez ere mintzatu da.

Osingoienerako etxebizitzak

Osingoienerako etxebizitzaren inguruan erronka handiena salneurri orekatuak jartzea izan dela dio. Kontuan izan behar baitzen herriko ondasun baliosuenetako bat dela eraikina. Bertan sei etxebizitza egin dira, batzuek besteko neurri eta salneurriak hauek izanik: txikiena 49m²koa 91.000 eurokoa

eta handiena 73m²koa eta 135.000 eurokoa.

2008ko udazkenean Udalak baldintza ekonomiko - administratiboaren prozedura irekiaren bidez esleitu zituen etxebizitzaren salneurriak. Proiektua amaituztat eman dute, sei etxebizitzaren salmentarekin. Honekin batera, urbanizazioko eta Erbian Errekako proiektuari emango diote segida.

Argi indarraren proiektua

Argi indarraren proiektuarekin, arazo larri bati irtenbidea eman diote; Gaztelun azken urte hauetan argi mozketak eta tentsio jaitzierak arazo bihurtu baitziren.

Herriko transformadorea %200 lanean aritu da batzuek beste,

eta Iberdrolak ezin zien etxe berriei argi indarra eman. Herriko biztanleek eta dituzten ustiapen desberdinek gogoz pairatu dute egoera, baina 140.086 euroko diru laguntzarekin gaur egun transformadore berria jarri dute. Argi indarraren sarea gehiengo batean berri dute. Inbertsio honekin, gaur egun dagoen biztanleen bi-koitzarentzat ere argia egongo litzateke.

Elurra kentzeko makina

Elurra kentzeko makina duela bi negu martxan jarri zuten, eta nekazaritza arloan tresna ezin eraginkorragoa izan da. Goizeko lehen orduetarako urrutien dauden baserrietako bideak garbi izatea ahalbidetzen duelako, baita izotzaren aurka gatzat botata ere.

Bide batez, zerbitzua eskaintzen duen langileari eskerrak eman nahi dizkiote «bere jarrera arduratsuatik».

Herri bideen ordenantza

Udal jabetzako edo herri bideen egoera, ordenantza baten bidez erregulatu dute. Herri bideak baldintza txukunean mantentzen dituzte, mendiko ustiaketak, egur enprekin adostuta eta eguraldia kontuan izanik. Garrantzi berezia eman nahi diote Lizartzako bideari; Gazteluko eremua eta Lizartzako zatia bi herrietako elkarlanarekin, auzolanean, egoera txukunean jarri dute. Diru laguntzaz baliatuz Oresa-Gaztelu bidea ere egokitu da.

Udaletxearen birmoldaketa

Udaletxearen birmoldaketaren inguruan, eremuak hobeto erabilteza zela helburu dio alkateak. Ustez zenbait gelak gehiegizko neurriak zeuzkatelako, eta banaketak egokitu nahi izan dituzte.

«Gela bat, Talde Politikoentzako era konpartituan egokitu dugu. EAJk Ezker Abertzaleari urte luzeetan uko egin die eskakizun gutxi, baita gela baten eskakizunari ere» -azaldu du Gazteluko alkate-

ak- «Udaletxeko barne banaketa ikusirik, PNVk betiko agintean egotea pentsatzen zuela dirudi, ez baitzegoen beste inorentzako gelarik. Hala ere, ez dakit aukerari honi etekina aterako dioten; eman zaien gela lanerako baita, eta momentuz aukerari uko egin diote eta».

UEMAN

Erabaki garrantzitsu bezala, UEMAN sartu izana (Udal Euskaldunen Mankomunitatean) aipatu du Patxi Iturriagak. Lerro hauek, Iñaki Agirrerren sendiari besarkada bat bidaltzeko aprobetxatuz, «Euskal Herriarentzat ezbehar itzela izan delako».

Etorkizuneko proiektuak

Etorkizunari begira berehala martxan jarri behar dituzten proiektuen artean, udaletxeko artxiboaren konponketa dago, diru laguntza 17.945 eurokoa izanik. ADSLaren sarea eta Ur Sarea hobeitzeko asmoa ere badute, 119.634,38 euroko laguntzarekin.



Udaletxeko bilkura aretoa gelaz aldatu dute Gaztelun. A. IMAZ

«EKINTZAK HITZEN GAINETIK»

«Badira hiru urte Udalean sartu ginela herriaren gehiengo batek nahi izan zuelako. Guregan jarritako konfiantzari esker, urte hauetan herriarentzat gogoz aritu gara lanean eta horrela jarraituko dugu gelditzen zaigun denboran» -gogoeta egin du alkateak-. «Une zailak pasa ditugu gure kide eta lagun Julian zendu zenetik. Une gogorrek pasatzen ari gara, gure Udaleko idazkaria (Leaburu eta Gazteluko idazkaria) bajaran baitago. Bere lantokian, zenbait pertsonaien presioengatik, inpunitate guztiarekin pertsonak suntsitzea helburu dutelako. Hemendik gure elkartasun gutzia eta besarkada bat berarentzat».

Egitasmo guzti hauek aurrera atera ahal izateko «zailtasunak» dituztela salatu nahi izan du, EAJren «oposizio atzerakoi eta suntsikorra» dela eta. «Herriarren zatiketa eta konfrontazioa bilatzen baitu. Hala ere, lana gogor eta konpromiso handiarekin egiten jarraituko dugu. Ekintzak hitzen gainetik daude, eta hona hemen gure lana».

Jaiak

ABUZTUAN EGUNERO JAI



JAIAK Tolosaldean eta Leitzaldean 19 herri eta auzotan ospatzen dituzte jaiak abuztuaren egunero; Altzokoekin hasiko dira datorren astean, eta Berrobikoekin amaitu hilaren bukaeran; nahi duenak, beraz, badu festarako aukera **6-20**



Handienak emango die hasiera jaiiei

Altzo » Koruaren eta dantza taldeen saioak, txirrindulari eta herri kirol probak, Anje Duhalderen emanaldia eta pilota aurten nabarmentzekoak.

Larraulekin batera, Altzokoak dira abuztuko jaietako zerrenda luzea irekiko duten jaiak. Uztailean 30ean hasiko dira erraldoiaren pregoiarekin, eta abuztuaren 2an amaituko dituzte.

Aurtengo jaietako egitarauak ez du aldaketa handirik izango beste urteetakoekin alderatuz. Hala, urtez urte errepikatzen direnak eta «harrera oso ona» izaten dutenak aurten ere lekua izango dute. Jai Batzordetik lehenengo egunean izango diren herriko koruaren emanaldia eta dantzarien saioak, aurten 19. urtea betetzen duen larunbateko erlojuaren aurkako txirrindulari proba, larunbateko he-



Herriko gazteen arteko demak ikusmin handia piztuko du. HITZA

rritarren arteko herri kirol proba, igandeko Anje Duhalderen emanaldia eta asteleheneko pilota partidak nabarmendu dituzte.

XIV. Pilota Txapelketan ondorengo pilotariak ariko dira nor bai-

no nor: kadeteetan Larrea-Oria eta NazabalMujika; jubenetan, Gailurralde-Jaka eta Artola-Zabala; eta afizionatuen mailan, Urretabizkaia-Galarraga eta Renobales-Zinkunegi.

» EGITARAUA

Uztailak 30, ostirala

- **17:00.** Jaien hasiera erraldoiaren pregoiarekin.
- **Ondoren.** Artea eta Lurr dantza taldeen ikuskizuna Loatzoko ikasleen musika emanaldiarekin.
- **19:00.** Herriko korua elizan.
- **20:00.** Presoen aldeko elkarretaratzea herriko pilotalekuan.
- **24:00.** San Inazio eresia.
- **Ondoren.** Tximeleta taldea.

Uztailak 31, larunbata

- **08:30.** Goiz eresia.
- **10:00.** Meza nagusia.
- **11:00.** Jubilatuentzat hamaiketako.
- **11:30.** Erlojuaren aurkako afizionatu mailako txirrindularien XIX. Altzoko igoera (Calcinor saria).
- **17:00.** Herriarren arteko apustua.
- **Ondoren.** Herriko trikitilariak.
- **21:00.** Sagardo dastaketa (kaxola bakoitzak berea eman beharko du).
- **Ondoren.** Laiotz taldea goizaldera arte.

Abuztuak 1, igandea

- **11:30.** III. patata tortilla lehiaketa herrikoa.
- **12:00.** Txakolin probaketa.
- **Tartean.** Toka txapelketa.
- **15:30.** Plater hausketa herrikoa.
- **16:30.** Pilota partidak frontoi berrian.
- **19:00.** Anje Duhalderen kantaldia herriko plazan.
- **22:30.** Bertso saioa herriko pilotalekuan: Egaña, Arzallus, Lujanbio, Gaztelumendi, Alberi eta Maia.
- **Ondoren.** Kupela taldea goizaldera arte.

Abuztuak 2, astelehena

- **10:30.** Ume jolasak.
- **15:30.** Mus txapelketa azkarra herriarrentzat.
- **18:00.** XIV. Pilota Txapelketaren finalak frontoi zaharrean.
- **Ondoren.** Triki bertso poteoa.
- **21:00.** Zahagi ardoa.
- **Jarraian.** Oinazez erromeri taldea eta DJ Dantzaleku festei amaiera emateko.

Pello Joxepe jaitsiko da Larraulera

San Esteban eta San Bartolome ospatzen dute Larraulen. Lehenak dira herriko jainagusiak, baina San Bartolome egunez ere festa giroa izaten da nagusi herrian.

Urtetik urtera arrakasta izaten duten ekitaldiak izango dira aurten ere. Gaztetxoentzat, esaterako, puzgarriak egongo dira, eta «oso ondo igarotzen duten bazkaria» ere bai.

Helduei zuzendutako ekitaldietan zikiro jatea nabarmendu behar da, «jende ugari eta giro polita sortzen baita». Bertsolariak ere izango dira aurten. Hain zuzen ere, Julio Soto, Amaia Agirre, Joxe Agirre eta Jon Maia ariko dira bertsoan hilaren lean.

Karretila zozketatu ohi dute urtero, eta hau San Bartolome egunean egingo dute plazan.



Pello Joxeperen jeitsierarekin hasiko dira Larraulgo jaiak. HITZA

» EGITARAUA

Uztailak 31, larunbata

- **11:00.** Txupinazioa eta Pello Joxeperen jaitsiera, buruhandi eta Gurdin Soinu herriko txarangarekin.
- **11:00.** Plater tiraketa.
- **12:00.** Pala txapelketa.
- **16:00.** Mus txapelketa.
- **18:00.** Antzerkia: *Musika-tresnen lantegia*, Kultur Etxean.
- **21:00.** Zikiro afaria plazan.
- **23:00.** Gabezin taldea.

Abuztuak 1, igandea

- **11:00.** Gazteen esku pilota.
- **12:00.** Pilota partida: Iñaki Esnal, Xabier Urbietak, Jon Urbietak eta Txomin Zinkunegi.
- **13:00.** Sagardo dastaketa (Aburua, Zabala, Gaztaña, Sarasola).

- **13:30.** Toka.
- **18:00.** Bertso saioa.
- **19:30.** Lidia eta Xabier trikitilariak.
- **23:00.** Ansorregi eta Larrañaiga trikitilariak.

Abuztuak 2, astelehena Haurren eguna

- **11:00.** Puzgarriak frontoian.
- **14:00.** Haurren bazkaria.
- **16:00.** Puzgarriak.
- **19:00.** Herri jolasak.
- **21:00.** Herri afaria Ostatuan.
- **23:00.** Eingo al deu taldea.

Abuztuak 3, asteartea

- **11:00.** Meza Nagusia.
- **11:30.** Hamaiketako herrikoa Katilutxulo elkartearen.
- **13:00.** Haur jolasak eta buruhandiak.
- **18:00.** Herri kirolak herriarren artean.
- **23:00.** Kupela taldea.

Abuztuak 24, asteartea San Bartolome eguna

- **11:00.** Meza Nagusia.
- **11:30.** Txirrindulari igoera.
- **12:00.** Hamaiketako herrikoa Katilutxulo elkartearen.
- **13:00.** Ahari jokoak.
- **18:00.** Idi probak.
- **20:00.** Erromeria Solano eskola-koekin.
- **22:30.** Urarte taldea.

ARANDIA
JATETXEA



Tel.: 943 65 22 62

ALTZO

DEKORA
ALTZARIAK

Euskal Herria 8
IBARRA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 576340
Faxa: 943 578172



Ekimen berritzaile ugari Salontzotan

Berastegi » Bertso saioa, gizon proba, artzain-zakur erakustaldia, dantza txapelketa eta gehiago izango dira abuztuko lehen asteburuaren bueltan.

Guraso elkartean sortzaileek emango diete ongetoria Berastegi Salontzo jaiei. Hortik aurrera, bost egunetan, izango da zereginik eta ikusirik herrian.

Berrikuntza eta ekitaldi berezi ugari prestatu dituzte Jai Batzordekoek. Alde batetik, abuztuaren 8an, I. Arin-arin eta Fandango Txapelketa jokatu da. 18 urtetatik 28ra bitarteko sei bikote ariko dira lehian. Horieta batzuk, familiakoak dira, besteak lagunak eta zenbait bikoteak.

Herriarren aurrean erakutsi beharko dituzte beraien abileziak parte-hartzaileek. Gainera, pieza bakoitzean, gutxienez, sei pauso ezberdin egin beharko dituzte. Irabazleak, txapela eta diru saria etxeratuko du. Egun berean, duela urte batzuk arrakasta handia izandako ekitaldi bat berreskuratu dute: Yeleen txakur eskolako artzain-zakur antzar eta ardi erakustaldia.

Bestalde, jaietan emango dira

ezagutera ere, zeintzuk diren bal-koi eta lorategi txapelketako irabazleak. Jada jendea hasi daiteke bere bozka ematen. Aurten, bal-koiak txapelketan, 22 lagunek eman dute izena, eta lorategietan, 14k.

Bertsoak ere txoko berezia izango du Salontzotan. Herrian, bertsoari jarraitzaile asko dituela ikusita, goi mailako bertso saio bat antolatu dute. Izen handiko bertsolari beteroekin batera, herritar bat ere igoko da taula gainera, *Etxorde*, hain zuzen ere.

Ekimen berritzaile ugari eskaini nahi izan diote tartea berastegiaren, eta horren adibide da *Dantzerki* emanaldia. Neska eta mutilen arteko dantzak egiten zizutenek, eta antzerki taldekoek bat egitea erabaki dute, eta denen artean, ikuskizun berri bat prestatu dute. Jaietan egunean, ikusi ahal izango da, zer den hau.

Herri kirolak eskualdeko herri gehienetako jaietan egitarauetan



Jaietako lehendabiziko egunean egingo dute aurten ere herri afaria. HITZA

aurkitu daitezke, baina ez gizon probak. Berastegin, bigarren aldiz, hainbat herritar animatu dira, eta nor baino nor ariko dira, harriari tiraka.

Jaiei agurra Kupela taldearekin emango diete. Festetako azken eguna, ezkonduena izaten da, eta talde hau aukeratu dute. Duela bi urte Joselu anaiek jarri zituzten

dantzarako erritmoak eta iaz berri, mexikar batzuek.

Honenbestez, azken indarrak dantzan agortu ahal izango dituzte berastegiaren, abuztuaren 10ean.

» EGITARAUA

BERASTEGIKO JAIK Abuztuak 6, ostirala

- 12:00. Guraso elkarteko fundatzaileek suziria botako dute festei hasiera ematez, txistulari eta buruhandien laguntzaz.
- 12:30. Frontenis txapelketako finalak.
- 18:00. Herri kirolak herritarren eskutik.
- 21:30. Herri afaria.
- Ondoren. Plazan balkoi eta lorategi txapelketako sari banaketa.
- 23:00. Dj Peru.

Abuztuak 7, larunbata KOADRILEN EGUNA

- 10:00. Goiz deia.
- 11:00-13:00. Patata tortilla txapelketa eta bitartean Mutrikuko Arno abereak haurrentzat.
- Ondoren, egindako tortilen dastaketa, txakolinarekin.
- 14:00. Kuadrilen bazkaria.
- 17:30. Kuadrilen arteko jokoak.
- Ondoren. Sagardo dastaketa sardina errekin.
- 19:30. Toka eta txotxa-aldatze txapelketa herrikoiak.
- 23:30. Trikidantz musika taldea.

Abuztuak 8, igandea

- 09:00. Goiz deia.
- 12:00. Frontoian benjamin, alebin eta infantil arteko pilota finalak.
- Ondoren. Plazan karreapeko pilota partidak.
- 15:30. Artalekun, plater tiraketa herrikoia.
- 17:30. Yeleen txakur eskolako

artzain-txakur, antzara eta ardi erakustaldia.

- 18:30-19:00. Buruhandiak txistulariekin.
- 19:00. Lehendabiziko Arin-arin eta Fandango Txapelketa herrikoia jokatu da.
- 22:30. Alurr-en dantza emanaldia.
- 00:00. Trikidantz musika taldea.

Abuztuak 9, astelehena UMEEN EGUNA

- 09:00. Goiz deia.
- 10:00-13:00. Gaztelu puzgariak haurrentzat.
- 17:00. Potxin eta Patxin pailazoak.
- 18:30. Haurren dantza emanaldia.
- 20:00-21:30. Laiotz musika taldea.
- 00:00. Laiotz musika taldearen erromeria.

Abuztuak 10, asteartea SALONTZO EGUNA

- 09:00. Goiz deia.
- 09:30. Meza San Lorenzo ermitan eta mountain-bike igoera herrikoia.
- 11:30. San Martin parrokian Meza Nagusia Perosiren obra kantatuarekin Lagunak abeslariaren eskutik.
- 12:00. Frontoian afizionatuen pilota partidak.
- 17:00. Buruhandiak txistulariekin.
- 18:00. Bertso saioa: Maialen Lujanbio, Xebastian Lizaso, Andoni Egaña, Amets Arzallus eta Iñigo Gorostazu *Etxorde* bertsolariarekin.
- Ondoren. San Joan dantza eta helduen dantza soka.
- 23:00. Herrikoen eskutik Dantzerki emanaldia.
- 00:00. Kupela musika taldearen emanaldia.

ELDUAKO JAIK Abuztuak 14, larunbata

- 18:00. Sardina jate herrikoia.

Abuztuak 15, igandea AMABIRJIN EGUNA

- 11:00. Meza nagusia.
- Ondoren hamaiketakoa.

- 18:00. Eriz Magoa.
- Jarraian Lopetegi ahizpak.

Abuztuak 22, igandea

- 13:00. Herri meza.
- 14:30. Herri bazkaria.
- 17:30. Ume-jolasak.
- Ondoren Gabezin taldea.

MERKATUTXO IBARRURU

- Elikadura
 - Drogeria
- Egurrezko materiala
 - Loreak...

Erakusketa
baseritar
tresnekin

Euskal Herria, 53 • IBARRA • © 943 01 99 51

Bazkari familiarrak
Komunioak
Astebukaerako
menua
(25-30 €)
Aparkamendu ona

ELEKTRIZITATEA

Euskal Herria, 27
IBARRA
Tel. 943 67 32 80

Ikaztegieta » Herritar talde batek 'Ama begira zazu' lan ospetsua taularatuko du; paella jatea eta herri kirolak ere ez dira faltako.

Krisiak bazter guztiak astindu ditu, eta herrietako jaiak ez ziren gutxiago izango. Ikaztegieta, aurten, inoiz baino gehiago, autogestioa izan dute ardatz festak antolatuzko garaian. Dena den, horrek ez du esan nahi, kalitatean eragina izan duenik. Alderantziz, modu honetan, inoiz baino jai herrikoia- goak osatzea lortu baitute.

Aurten, urte askotan, jai batzordekoen artean bueltaka ibili den ideia bat gauzatzea lortu dute. Hau da, antzezlan bat taularatzea. Horretarako, euskal antzerkigintzan erreferente izan den lan bat aukeratu dute, *Ama begira zazu*, hain zuzen ere. Adin ezberdinetako 15 lagunek prestatu dute antzezlan. Liburutegian ari dira entseguak egiten, eta festen azken egunean, amaierako ekitaldi bezala, ikusiko da emaitza. Nabarmenezkoa da gainera, aktore lanak egiteaz ez ezik, eszenatokia atontzeaz, eta arropak egiteaz ere beraiek arduratu direla.

Herri kirolek protagonismo handia dute Ikaztegieta jaietan. Alde batetik, hainbat herritarrek parte hartzen dutelako, eta beste-

Estreinakoz, herritarren antzerkia

tik, jende ugari joaten delako hauek ikustera. 30 ikaztegiataritzen dira, trontzan, harri jasotzen, zakuak eramaten, ingudea altxatzen eta beste hainbat probetan, beraien abileziak erakusten.

Musikari dagokionez berriz, estilo eta adin ezberdinetako jendearentzako eskaintza osatzen saiatzen dira, eta horren adibide da, rock doinu gogorrenetik, trikiti klasikoenerainoko aukera dagoela.

Koadrilen eguneko paella jatea berriz, duela hiru urte martxan jarritako ekimena da, baina jada, finkatua dago, eta egitarautik kendu ezinezko bazkari bihurtu da.



Ikusmin handia sortzen du herriko gazteen arteko herri kirol saioak. HITZA

» SAN LORENTZO JAIK

Abuztuak 6, ostirala GAZTEEN, PRESO ETA IHESLARIEN EGUNA

- **19:00.** Herri kirolak, herriko koadrila desberdinen artean.
- **Ondoren.** Triki poteoa.
- **21:00.** Afaria.
- **23:30.** Kontzertua Gargantas desgarradas, Cantaflor eta Detri-talon taldeekin.
- **Goizaldera** txokolatada.

Abuztuak 7, larunbata HAURREN ETA KOADRILEN EGUNA

- **10:45.** Haurren txaranga, kiroldegitik udaletxera eta plazara.
- **Ondoren.** Txupinazoa. Leire Oلابerria eta herriko kirolari ospetsuen eskutik.
- **Jarraian** paella prestaketa plazan.
- **11:30 - 13:00.** Haurren pilota partidak: Ikaztegieta-Alegia-Altzo.
- **14:00.** Koadrila bazkaria.
- **16:00 - 19:00.** Haurren jolas parkea, puzgarriak, ohe elastikoak eta karts zirkuitoa. (Ikaztegieta guraso elkartearen laguntzaz).

- **17:00.** Mus eta toka txapelketa.
- **18:30.** Herri poteoa, trikitalariek.
- **23:00.** Sunbillatik kantuz taldearen emanaldia.

Abuztuak 8, igandea

- **11:15.** Meza.
- **Ondoren** Wu-shu erakustaldia herriko haurren eskutik.
- **13:00.** Herriko musikariaren kontzertua elizan.
- **17:00.** Pilota partidak: kadeteak, lau t'erdian eta afizionatuak.
- **20:00.** Sardina jatea.

- **22:30.** Keiran-en kontzertua.
- **Ondoren.** Eneritz, Edurne eta Maddi trikitalariak.

Abuztuak 10, asteartea SAN LORENTZO EGUNA

- **11:15.** Meza.
- **Ondoren.** Txakoli dastaketa.
- **14:00.** Jubilatuen bazkaria Herri gintza elkartearen.
- **18:00.** Jon Magik Magoa eskolako gimnasioan (eskolako haurrek sustatuta).
- **21:00.** Herri afaria.
- **23:00.** Herri antzerkia.



Herriko gazteak eta trikitalariak arduratuko dira jai giroa zabaltzeaz lehen egunetik. HITZA

» ALBIZTURKO JAIK

Abuztuak 12, osteguna

- **18:00.** Frontenis txapelketako finalak.

Abuztuak 13, ostirala

- **16:00.** Txupinazoa eta burhandiak. Hauekin batera, trikitalarien kalejira ere izango da.
- **17:00.** Ume jolasak (Bizkor guraso elkartearen eskutik).
- **21:00.** Herri afaria.
- **Ondoren** Zesuma taldearen eskutik erromeria.

Abuztuak 14, larunbata

- **12:00.** Toka txapelketa herrikoia.
- **15:30.** Sagardo txapelketako sagardoak bilduko dira eta epai-mahaia osatzeko zozketa egingo da.
- **18:00.** Benito Ros-en erakustaldia, trialeko motoarekin eta bizikletarekin (San Anton harrobiaren eskutik).
- **Ondoren.** Landatarrek alaituko dute afal-aurrea.
- **20:00.** Meza eta Agur Erregina.
- **20:30.** Patata tortilla lehiaketa.
- **21:00.** Sagardo txapelketa.

- **23:00.** Elustondo anai-arrebekin erromeria.

Abuztuak 15, igandea

- **11:15.** Meza nagusia.
- **12:00.** Gaztetxoaren pilota partidak eta hamaiketako adinekoentzat.
- **18:30.** Bertso saioa: Jon Maia, Beñat Gaztelumendi, Miren Amuriza eta Jexux Mari Irazurekin. Gai-jartzaile, Unai Elizasu.
- **22:00.** Pilota partidak.
- **Ondoren** dantzaldia Arandia anaiekin.

Fronteniseko pilotakadek hasiko dute jaia

Albiztur » Txapelketa herrikoia ari dira jokatzen, eta jaien bezperetan iritsiko da amaierara; trial erakustaldia, bertsolariak... ere izango dira.

Ohiko txupinazioarekin hasi beharrean, frontenisean jolastuz berrotuko dituzte motorrak Albiztur- rren. Uztailaren 16an ekin zioten txapelketari eta abuztuaren 12an emango diote amaiera finalekin. Alde batetik, neska nahiz mutilen 12 bikote ari dira lehia, eta bana- ka, 10 lagun. Honenbestez, jaien bezperetan jakingo da zeintzuk diren irabazleak.

Aurten, herri gehienetan bezala, krisiak eragina izan du jaiak antolatuzko garaian, eta ohiko ekitaldiak hiru egunetan bildu dituzte. Jada finkatuta dauden ekitaldiak izango dira nagusi Albizturko jaietan: sagardo txapelketa, herri afaria, toka txapelketa, pilota parti- dak...

Aurten, duela hiru urte antola- tutako ekintza bat berreskuratzea erabaki dute jai batzordekoek. Benito Ross-en erakustaldia hain zu- zen ere. Orduan, eguraldiak za- puztu zuen saioa, eta orain, gehi- gorako gogoz geratu ziren horiei, ikuskizunaz gozatzeko beste au- kera bat eskaini nahi diete.

Bertsolaritzak ere jarraipen handia izan du beti herrian, eta modubatean edo bestean, beti izan da present. Aurten saio borobilaj- rri dute Amabirjin egunean. Pun- ta-puntako bertsolariak igoko dira taula gainera. Egun berean, baina gauetz, afizionatuen arteko pilota partidak izango dira. Eta gauero, nola ez, trikiti doinuak izango dira nagusi.

Herritarren arteko dema ikusteko gogoia

Baliarrain » Ezkondu eta ezkongabeen artean egingo dute herri kirol saioa; triki bertso poteoa eta bertso saioa ere azpimarratu dituzte.

San Lorentze jaien lekukoa Ama Birjin jaiak hartzen dute. Makina bat herritan dira gure eskualdean Ama Birjinaren jaiak, eta horietako bat da Baliarrain. Abuztuaren 13tik 16ra festa giroa topatuko du haragerturatzan den orok.

Jai Batzordetik egitarau anitza antolatu dutela azaldu dute, eta ekitaldi guztietatik, triki bertso poteoa, bertso saioa eta herri kirol saioa nabarmendu dituzte. Feste-tako lehenengo egunean, hau da, hilaren 13an, bertso saioa izango da gauean. Bertsolari Txapelketako finalean aritu ziren sei bertsolari ariko dira, beraz, «maila ona ziurtaturik dago».

Bertsopoteo arrakastatsua

Triki bertso poteoa antolatzen duela bi urte hasi ziren, eta harrera «oso ona» izan duenez, aurten ere errepikatu egingo dute. «Espero dugu beste urteetako arrakasta errepikatzea eta giro polita sortzea», azaldu dute Jai Batzordetik.

Igandean izango den herri kirol saioa urtero antolatzen dute, baina aurtengoa «bereziagoa» izango da, herritarrek hartuko baitute parte. «Ezkondu eta ezkongabeen artean egingo dute lehia eta ikusgarria izango da». Egun horretan bertan izango den Txirindulari Igoera ere nabarmentzekoa da tradizio handikoa baita.



Herri afaria izango da aurten ere Baliarraingo jaietan. HITZA

» EGITARAUA

Abuztuak 13, ostirala

- 19:00. Txupinazoa.
- 19:30. Patata tortilla lehiaketa.
- Ondoren. Zahagiardoa.
- 23:00. Bertso jaialdia: Andoni Egaña, Sustrai Colina, Amets Arzallus, Jon Maia, Maialen Lujanbio eta Aitor Sarriegi.
- Ondoren. Eguna alai bukatzeko Bide Batez taldea.

Abuztuak 14, larunbata

- 13:00. Sagardo dastaketa.
- 14:00. Bazkaria sagardoarekin.
- 19:00. Trikixootx Iker Zubel-

dia eta Amaia Agirre bertsolariekin.

- 21:00. Afaria sagardoarekin.
- 23:00. Itzel taldea goizaldera arte.
- Gauerdian. Mozorro gaua.

Abuztuak 15, igandea

- 11:00. Meza nagusia.
- 12:00. XLVIII. Txirindulari Igoera.
- Ondoren. Urarte taldea.
- 17:00. Kulki umeentzako jolasak.
- 19:00. Herri kirolak.

■ 23:00. Pilota partida.

■ Ondoren. Urarte taldea goizaldera arte.

Abuztuak 16, astelehena

- 11:00. Meza nagusia.
- Ondoren. Hirugarren adineko-entzako hamaiketakoa.
- 12:00. Herri mailako toka txapelketa eta herri mailako marathoia (sarrera xeblebreenari saria).
- 18:00. Poxpolo ta konpainia.
- 21:00. Herri afaria.
- Gauean. Jaietako amaiera emateko Unsain taldea.

Orendainen, betikoa baina berrikuntzekin

Orendainen ere Ama Birjinaren jaiak abuztuaren 13tik 16ra ospatuko dituzte. Denetarik izango da, umeentzako eguna, mozorro eguna eta tartean ekitaldi ugari adin guztiei zuzendutak.

Umeen egunean jolasak eta puzgarriak izango dituzte, eta aurten jumping-a ere ekarriko dute, «haurrek saltoka ederki pasatzeko». Egun honetan arrakasta handia izan ohi du sardina eta txistorra jateak, «jende ugari biltzen baita, giro ederrean».

Saiheski jatean ere jende ugari bilduko da aurten, eta gainera, mozorro soinean dutela izango dira

herritarrek, bigarren eguneko gauean mozorro txurrik joateko gonbirta luzatu baitiete herritarrei.

Hirugarren egunean herri kirol saioa nabarmendu dute antolatzaileek. Herriko bi talde ariko dira, hainbat kiroletan. Ondoren, zaldi lasterketa izango da, «jende asko biltzen duen ekitaldia».

Alegiatik Orendainerako proba

Antzina Alegiatik Orendainera txirindulari proba egin ohi zuten, eta duela 3-4 urte berriro hasi ziren antolatzen, «arrakasta handiarenkin». Herri inguruan egingo dute proba 2005-2010, 2001-2004 eta

1995-2000 urte bitartean jaiotakoek; Alegiatik igoera egingo dute 1994 urte bitartean jaiotakoek.

Azken egunean izango dira, baita ere, pilota partidak: Garmendia-Ceberio eta Garmendia-Lizarralde; Garmendia-Garmendia eta Irizar-Garmendia eta Galarraga-Gorka eta Mintegi-Otegiariko dira aurrez aurre.

Jaietako azken egunerako bada berrikuntzarik, izan ere, aurten patata tortilla lehiaketako parte-hartzaileek etxetik prestaturik eman ordez, bertan egin beharko dute tortilla. Ondoren prestatutakoekin egingo dute afaria.



Ume jolasek ere ez dute hutsik egingo aurten Orendainen. HITZA

» EGITARAUA

Abuztuak 13, ostirala UME ETA GAZTETXOEN EGUNA

- 16:00. Suziriak.
- 16:00. Ume jolasak.
- 18:00. Merienda.
- 20:00. Sardin erreak eta txistorra herriko plazan.

Abuztuak 14, larunbata MOZORRO GAUA

- 19:00. Suziriak.
- 19:15. Herri poteoa Gari eta Iñakirekin. Denak mozorrotuta etorri!
- 21:00. Betiko ohiturari jarraituz, saiheski jatea herriko plazan.
- 23:00. Gari eta Iñaki taldea.

Abuztuak 15, igandea AMA BIRJIN EGUNA

- 11:00. Suziriak.
- 11:15. Meza nagusia herriko elizan.
- 12:00. Herriko dantzari txikien saioa.
- 12:30. Txakolin dastaketa mokadu goxoekin.
- 17:30. Preso eta iheslarien aldeko herriko bi taldeen arteko herri kirol saioa frontoian.
- 18:30. IV. Zaldi Lasterketa egingo dute.
- 21:00. Zahagiardoa.
- 23:00. Lahiots taldearekin dantza taldea goizaldera arte.

Abuztuak 16, astelehena

- 11:00. Suziriak.
- 11:00. Meza nagusia herriko hildakoen alde.
- 12:00. Txirindulari lasterketak.
- Ondoren sari banaketa.
- 14:00. Bazkaria eltxo elkartearen.
- 16:00. Umeentzat puzgarriak.
- 18:30. VIII. Toka Txapelketa.
- 20:30. Patata tortilla lehiaketa herriko plazan.
- Ondoren. Koadrilen afaria.
- 22:30. Pilota partidak.
- 22:30. Jesus Mugikaren taldea plazan, parrandari segida emanez.
- Azkenik ohiturari jarraituz, harriri buelta.

ORENDAIN
ostatu - jatetxea

Sukalde eta azoka berezitasunak:

- Babarrunak - Arraultz bereziak
- Arkumea labean - Irasagarria
- Baserriko oilaskoa - Artirina
- Erretegi berezitasunak - Gaztak

Errosario plaza
- 20269 ORENDAIN -
Tel.: 943 65 30 48

Aurten mozorroturik estreinakoz

Hernialde » Mozorro gaua antolatu dute aurten lehen aldiz; gainerako ekitaldietan herri kirolak, dantza eta sagardo dastaketa azpimarratu dituzte.

Ohiko ildo jarraituko dute festek Hernialden, baina izango da berrikuntzarik, eta lehenengo egunean, gainera. Festa Batzordean zerbait berria egitea pentsatu zuten, eta horrela mozorro gaua antolatzea erabaki zuten. «Zerbait desberdina egin nahi genuen, eta mozorro-ena ideia polita iruditu zitzaigun; aurten, proba egingo dugu eta harrera ona badu errepikatuko dugu; lehen aldian izanik, zerbait erraza egin nahi dugu, eta cowboy edo bakeroz jantzita irteera proposatu dugu. Herriar guztiak animatzen ditugu horretarako».

Bestalde, urtero hutsik egiten ez duten ekitaldien artean daude herri kirolak. Era berezian egin ohi

dute, gainera, herritarrez osaturiko taldeen artean, eta aurten ere horrela izango da, hilaren 15eko arratsaldean.

Hernialden ohiko den beste ekitaldia dantza saioa izaten da. Bertan gaztetxoek nahiz helduek, guztiak batera egin ohi dute dantza, eta guztiak dira herrikoak. Hilaren 14an erakutsiko dute azken asteetan eta hilabeteetan ikasten egon direna.

Egun berean tradizio handiko beste ekitaldi bat izango da, sagardo dastaketa. 19.ena da aurtengoa eta Gaztañaga, Rezola, Elutxeta, Sarasola, Barkaiztegi, Otsua-enea, Petritegi, Izeta eta Lizeaga sagardotegiak hartuko dute parte.



Herriko kirol proban herritarrek ariko dira nor baino nor. HITZA

» EGITARAUA

Abuztuak 12, osteguna MOZORRO GAUA

- 20:30. Txupinazoa eta suziarik.
- 21:00. Zahagiardoa.
- Jarraian. Dantzarako musika. (Herri guztiak batera jantzita).

Abuztuak 13, ostirala

- 11:30. Puzgarriak goiz guztian.

- 14:00. Umeen bazkaria.
- 17:00. Poxpolo eta konpainiaren emanaldia.
- 19:00. Patata tortila lehiaketa.
- Jarraian zahagiardoa.
- Afalondoa. II. mus txapelketa herrikoia.
- Gauean Dani eta Pello trikitilariak.

Abuztuak 14, larunbata

- 18:30. XIX. Sagardo dastaketa, bederatzi sagardotegi desberdinekin.
- 20:00. Herriko dantzarien emanaldia.
- Ondoren herri afaria.
- Jarraian Babezian taldearekin dantzaldia.

Abuztuak 15, igandea

- 11:00. Meza nagusia.
- Ondoren. Hamaiketako banatuko dute gerturatzen den orontzat herriko elkartean.
- 18:30. Herri kirol saioa herriko bi talderen artean.
- Ondoren festa amaierarako trikitixa.

Ama Birjinaren festak aurreraturik

Aduna » Miren Fernandez abeslaria ariko da lehen egunean; estreinakoz presoan aldeko trikipoteoa eta brindisa egingo dute aurten.

Ama Birjinaren jaiak ospatzen dituzte Adunan, eta horregatik, abuztuaren 15aren bueltan izango dira jaietan bertan. Dena den, festa giroa abuztuaren 7an hasiko da zabaltzen, egun horretatik aurrera antolatu baitituzte ekitaldiak.

Lehen egunerako antolatu duten ekitaldietako bat nabarmendu dute antolatzaileek: «Miren Fernandez abeslariaren kontzertua izango da elizan; kontzertu lasaia eta polita, euskal kantagintzako abestiek, beraz erabat gomendagarria». Berarekin, pianoan Antxon Sarasua, akordeoiarekin Iñaki Oliben eta kontrabaxuan Abel Perona ariko dira.

Hurrengo egunean jateak eta edateak edukiko dute protagonismoa, batetik sagardoa izango baita, eta bestetik txekorra bazkari eta afarirako.

Aurten estreinakoz trikipoteoa antolatu dute preso eta iheslarien

alde. Hau festetako hirugarren egunean izango da. Egun horretan, baita ere, argazki eta marrazki lehiaketako irabazleak sarituko dituzte. June Gonzalez eta Jon Ander Belamendia dira, hain zuzen, aurtengo lehiaketak irabazi dituztenak.

Umeen eguna iritsiko da ondoren, umeengozamenerako hamaika jolas eta ekitaldiekin. Egun horretan bertso saioa ere izango da Uxue Alberdi, Miren Amuriza, Julio Soto eta Beñat Gaztelumendiarekin. Gai-jartzaile lanetan Unai Elizasu ariko da.

Koadrilek hilaren 14a izango dute euren eguna. Bazkaria izango dute txaranga doinuek alaiturik, eta afariarekin festa jarraitzeko aukera ere izango dute bokadiloak egongo baitira salgai AHTren aurkako taldearen eskutik.

Azken egunean dantza saioak eta herri kirolak nagusituko dira.



Hamaika dantza saio egingo dituzte herritarrek jaietan. Irudian, iazko festetako une bat. HITZA

» EGITARAUA

Abuztuak 7, larunbata

- 14:00. Jubilatuen bazkaria.
- 16:30. Transernio eskupilota txapelketa.
- 22:30. Miren Fernandezaren emanaldia elizan.

Abuztuak 8, igandea

- 11:00. Herri krosa.
- 12:00. Sagardo dastaketa.
- 14:00. Txekor jatea.
- 21:00. Txekor jateko afaria.
- Ondoren. Astiasaran trikitilarien emanaldia.

Abuztuak 12, osteguna

- 06:00. Oilasko biltzaileen irteera.

- 12:30. Txupinazoa.
- Ondoren. Oilasko jokoa.
- Ordu berean. Argazki eta marrazki lehiaketako sari banaketa.
- 19:30. Trikipoteoa eta brindisa preso eta iheslarien alde.
- 20:30. Herri afaria.
- Ondoren. Urarte taldearen emanaldia.

Abuztuak 13, ostirala UMEEN EGUNA

- 12:00. Umeen jolasak.
- 13:30. Umeen bazkaria.
- 15:30-19:30. Jokulandia.
- 22:30. Bertsolariak.
- Ondoren. Laket taldearen emanaldia.

Abuztuak 14, larunbata KOADRILA EGUNA

- 14:00. Koadrilen bazkaria Iraunkorrek txarangaren doinuek alaiturik.
- 23:00. Kantuki taldearen emanaldia.

Abuztuak 15, igandea AMA BIRJIN EGUNA

- 07:00. Diana.
- 11:00. Meza nagusia.
- 12:30. Axeri dantza.
- 18:00. Herri kirolak herriko gazteen eskutik.
- 22:30. Bide Batez taldearen emanaldia.
- Atsedendian Asto Karrera.

Emakumeen sega proba jaietako izar

Gaztelu » Lehen eguna umei zuzendurikoa izango da, eta bigarrenean binakako emakumeen sega proba, dantza eta bertsoak izango dira.

Andre Mari jaiak ospatzen dituzte Gaztelun, abuztuaren 14an eta 15ean. Bi eguneko egitaraua baino ez dute antolatuta, baina ekitaldietan «beteak» datozkigu aurtengo festak.

Lehendabiziko eguna, batez ere, gaztetxoei zuzendutakoa izango da. Izan ere, goizean eskulanak egiten ariko dira, eta arratsaldean, berri, magia ikuskizunaz gozatu ahaliko dute eta ondoren askaria izango dute.

Afarian elkartuko dira ondoren gazteluarrak, eta gero herritarrek eskainitako emanaldia izango dute. Hain zuzen ere, Eñaut eta Paul herritarrek igoko dira eskenatokira eta abestu egingo dute. Musikak goizaldera arte jarraitu-

ko du Arrabotx taldearen doinuekin.

Herri kirolak eta bertsoak

Jaietako bigarren egunean, berri, herri kirolak, bertsoak eta dantza nagusituko dira. Antolatzailerek emakumezkoen binakako sega proba nabarmendu dute: «Gaztelun segak garrantzi handia du, segalari handiak baitaude herrian, eta proba hau polita izango da; azken hilabeteetan herrian sega ikastaroa antolatu dugu igande arratsaldeetan, eta proba honekin ikusiko da ikastaroan parte hartu dutenek ikasi dutena». Herritarrez nahiz kanpotarrez osaturiko zazpi bikotek eman dute izena probarako.



Igandeetan egin dute sega ikastaroa Gaztelun azken asteetan. HITZA

» EGITARAUA

Abuztuak 14, larunbata

- **11:00.** Eskulanak gaztetxoentzat.
- **17:30.** Jon Magik magoa.
- **Ondoren.** Merienda.
- **21:00.** Herri afaria Erroizpe Azpiko kirol eta kultur elkartearen.
- **23:30.** Eñaut eta Paul herriko gaztetxoek abesti saioa.

- **Ondoren.** Arrabotx musika taldearekin dantzaldia.

Abuztuak 15, igandea

- **Goizean.** Meza nagusia.
- **Ondoren.** Hamaiketako Erroizpe Azpiko kirol eta kultur elkartearen.
- **12:00.** Toka herrikoia.

- **Ondoren.** Izer eta Alabier trikitilariak.
- **Arratsaldean.** Bertsolariak eta dantzarien emanaldia.
- **19:00.** Emakumezkoen binakako sega proba.
- **20:00.** Bertsolariak.
- **Ondoren.** Izer eta Alabier trikitilariak.

Zizurkil Goian festa giro polita zain

Zizurkil » Lartzako Benardak piztuko du jaien hasiera iragarriko duen suziria hilaren 13an; 16ra arte luzatuko dira festak.

Lartzako Benardak suziria piztea-ekin batera lehertuko da jaia Zizurkil Goian. Abuztuaren 13an izango da hori, eta hilaren 16ra arte dantza, musika eta alaitasuna nagusituko dira Zizurkilgo auzoan.

Oilasko biltze eguna izango da estreinakoa. Egun honetan oilasko jokoaren festa eta dantzaldia izango dira nabarmentzekoak, herri afariarekin batera.

Hurrengo eguna, herriko gaztetxoei zuzendutakoa izango da. Makina bat jolas egiteko aukera izango dute goizean nahiz arratsaldean. Hirugarren egunean herritarren arteko lehia ikusgarria izango da, eta Trikitixa Txapelketa ere egingo dute bosgarren urtez. Sagardo dastaketa ere izango da, eta herriko baserriarrek euren produktuak eskainiko dituzte. Bertso saioan Joxe Agirre, Amaia Agirre, Jexux Mari Irazu, Sustrai Kolina, Maialen Lujanbio eta Aitor Mendiluze ariko dira.

Azken egunean mozorroek hartuko dute protagonismoa. Gaia norbere kontura joango da, eta onenari saria emango diote.



Abuztuaren 16an, eguerdian, harri jasotzen eta aizkoran ariko dira. HITZA



» EGITARAUA

Abuztuak 13, ostirala OILASKO BILTZEA

- **13:00.** Benarda (Lartzakoak) piztuko du herriko jaien hasierako suziria Iriarte Etxeko balkoian.
- **Ondoren.** Oilasko jokoaren festa eta dantzaldia.
- **17:00.** Umeen pilota partidak.
- **19:00.** Katerik gabeko bizikleta jeitsiera.
- **21:00.** Herri afaria.
- **Ondoren.** Laiotz dantza taldea.

Abuztuak 14, larunbata UMEEN EGUNA

- **11:45.** Kroserako izena ematea.
- **12:00.** Krosa.
- **12:30.** Buruhandiak eta ondoren jolasak (Sariak egongo dira parte-hartzaile guztientzat).
- **14:00.** Bazkaria herriko umeentzat.
- **15:30.19:30.** Puzgarriak: ludoteka, Disney tobogana eta giza futbolina.

- **16:00.** XX. Mus Txapelketa jokatuko da.
- **22:00.** VIII. Zimiterioko pilota txapelketaren 3. eta 4. postuak eta finala.
- **24:00.** Preso eta errefuxiatuen gaua. Kontzertua: Hesian eta Ze satek.

Abuztuak 15, igandea

- **12:00.** Herritarren arteko lehia egingo dute.

- **17:30.** Zizurkilgo V. Trikitixa Txapelketa.
- **Ondoren.** Sagardo dastaketa Seitán herriko taldearekin. Herriko baserriek eskainitako produktuen dastaketa tabernen eskutik.
- **23:30.** Bertsolarien saio nagusia.
- **Ondoren.** Laket.

Abuztuak 16, astelehena MOZORRO EGUNA

- **12:00.** Herri kirolen erakustaldia:

- aizkorarekin eta harri jasotzen ariko dira.
- **14:30.** Jubilatua eta herri kirolarien bazkaria.
- **Ondoren.** Musika.
- **18:00.** Idi probak.
- **Ondoren.** Barrikotea.
- **21:00.** Oilasko afaria.
- **Gauean.** Mozorro onenari saria. Gaia librean izango da.
- **Gauean.** Musika Traketx taldearekin.

Sanbartolomeetan, ez dira faltako herri kirolak eta piperraren festa

Ibarra » Udalak bere kabuz antolatu ditu aurten herriko jaiak; aurten ere egitaraua anitza eta oparoa osatzen ahalaginduko dira.



Herriar egari bilzen dituen ekitaldia da urteroko egiten den tomatearen eta piperraren festa. » 17/24

Abuztuaren amaierara arte inaxion behar izaten dute Ibarterrek herriko jaiak gozatzeko, eta aurten ere horrela izango da. Honenbeste herriko jaietan jiltzi ostean, azken indarrak agortzeko bide izaten dira Ibarrikoak.

Ezbarrik gabe, zeresan handia eman dute aurteko Sanbartolomeek. Baina, jendea zalantzarik erabat ustezkoa. Udalak, oraingoan ere, aurreko jaiak oinarri hartuta, festa antzeko eta oparok antolatu ditu. Dena den, oraindik zehazteko dituzte zenbait ekitaldi eta ikusizkoen datuak, hori dela eta egitaraua bere osotasunean ezin izan dute helarazi.

Piperra eta tomatearen urteroko festa ez da faltako aurten ere, ezta haurrei zuzendutako eguna ere. Ibarra orain dela «bertako langostino egutia» eta urtero San Bartolome eguneez, hauek dastatzeko aukera eskaintzen diete herriarrei, hamaketako gisa. Honenbeste, bertako ekizideek landatutako piperrak eta tomateak jan ahal izango dituzte Ibarrara burbitzen direnek.

Jateko eta edanekoaz gain, herri kirolak ere izango dira herriko jaietan. Honenbeste, herriko zaindarren egunaren bueltan izango da zenbait ekitaldi eta ikusizkoen datuak, hori dela eta egitaraua bere osotasunean ezin izan dute helarazi.



Herri kirolak aurten ere izango dute tartea Sanbartolomeetan. » 17/24

Gutunak

San Bartolome festak 2010

Beste behin ere San Bartolome jaien aurretik aurkitzen gara jada. Aurten ere, aurreko urteetan bezala, jendek ure gurritan zehar kezkatzen dituen arazo eta ardurak alde batera utzi dituzte eta ongi pasa dezala espero dugu.

Guztiz, bai Ibarterek, bai egun haurretan jaiak gurekin ospatzen dituzten direnek ere, musikarekin, kirol lehiaketa desberdinekin, ekitaldi desberdinetan parte hartuz, ongi pasatzeko aukera izango dute.

Aldin guztietarako proposak diren jaiak antolatu ditugu, gazte-koetan ez hain gaztekoentzat kontzertu eta berberak egongo dira. Kirol desberdinekin ikusleko aukera egongo da, txirrindulari lasterketa, bertso larrikak.

Gazteon ere beraien gunak izango dituzte.

Festako egun handia, San Bartolome eguna da, eta bertan bazelapatuko dugu, Meza Nagusia, tomate eta pipar dastaketa, bozeto eta literatura lehiaketa sari banaketa.

Azken finean, deskantsatzeko eta eguneroko errutinak irretzeko egunak izango dira. Ibarra eta inguruetako herriak guzti ongi pasatzera animatzen dizagu, Ibarrrako festek, jende marduri biltzen dute urtero eta aurten gaitzago ez izatea espero dugu. Ibarroren zai-tuzte!

Chelo Romeo, Ibarriko alkate.

Aldarrikapena eta festa bat eginik, jai herrikoietan

Ibarra » Bartola herri ekimeneak Bartoloak antolatu ditu hirugarrenez; abuztuaren 20tik 25era bitartean ospatuko dituzte.

Hirugarren aldiz, Bartola herri mugimenduak jai alternatiboak antolatu ditu. Ongi pasatzeko ezin, aldarrikapenerako egunak ere badira festa alternatiboak. Bartoloaren esanetan gainera, «Udalak urte hauetan, bere jarrera aldatu dezake okerrera gaitz, eta herrien erakusle da, aurten inoiz baino halarik gaitzagoa da». Herri mugimenduko sustatzailea Udalak guztiak egiteko duen moduak ekarri ditu. Honenbeste, Bartola jai Bartoloko herriak guztiak gaitzago izango dira jaiak antolatzea eta gozatzera. Udal proposatzen duen *Gurekin jai dute* izango da Bartolo hain lekoa.

Herriarrek emanadako laguntza esker antolatu dituzte Bartoloak. Jai erabat autogestioan antolatzen dira eta herriarrek, «Ibarterren parte-hartzearekin batera» antolatzen dira. Hilaren 20an emango diete hasiera jarduere, eta egun horretan bertan, jaietako ekitaldi nagusiak antolatzen dira.

Daada bi urte danborrada jaietarik desagertu egin zen, eta izazko Bartoloetan berreskuratu zen, Danborrada batzordearen eskutik. Daada hiru hamar karta inguru hasitako ekimenean oraindik bizi-ririk jarraituko da, eta aurten, herriarrek, ohiko baino bereziagoa izango da. Antolatu zuten esanetan, «esusteko politikak egongo dira». Dena den, lehenaldiz, arratsaldean entsegu egingo dute, eta gusean, kalera aterako dira, danborrak asintzera. Bertan parte hartu nahi dutenentzat, jaiak hasi arte izena emateko epea zabalik egongo da. Honek, 30. danborrada honen helburua «berreskuratzeko» gain, urte luzeetan irau dezan indar izan da.

Ondorengo tarteretan eman

dituzte izena: Zubiaurre, Sendi Ekizta, Dason'Txoko eta gaitz-txean. Danborradan parte hartu nahi duten herriarrek beraz, aipatutako gusean izango dute izena emateko aukera.

Iganada, Bartoloetako egun handietakoa
Bartola Jai Batzordekoek, egun hau bere osotasunean nabarmendu nahi izan dute. Aldeberetik, gaitz-txean, sokatira desafio ikusgarria izango baita. Herriko ama, ama ez diren aurka ariko dira sokatira. Laz, Ibarriko neska: Tolosaon aurka lehiatu ziren eta hor izan zuen inurburu desafioak. Orotara, 24 neska aritu dira entzuzten Behobidea kiroldegian. Beraz, abuztuaren 22an Ibarriko plazan ikusiko da zeinek duen saio hori.

Sokatiraren ostean, herri bazkaria izango da. Oraindik ere, jendek eskaragarri dituzte bertan joeteko txaradak, herriko txerretan. Bazkaloetan alaitzeaz bertolotarik eta abeslariak arduratuko dira. Aldeberetik, Iker Zubeldia eta Sustrai Colina ariko dira bertan. Eta besteik, bi Ibarterrak, hain zuzen.

Ibarriko Gazteak ere bat egin du Bartola herri ekimenearekin, eta jaietan bertan, kontzertuak izango dira bertan. Bestalde, bertalaguneez egun guzitan zehar zabalik egongo da.



Aurten ama diren eta ez diren arteko sokatira desafioa jokoan izango da Bartolotan. » 17/24

BARTOLOAK

BARTOLAK
Abuztuak 20, ostirala
«18:00. Txupinazoa eta Bartolarren jaiak, herriko dultzaineroekin eta buru handiekin, jai hasiera emateko.
«19:00. Ume jolasak plazan.
«20:00. Manifestazioa, Euzko presoak eta abeslariak eta txerretan.
«21:00. Herri afaria.
«22:30. Kontzertuak.

Abuztuak 21, larunbata
«11:30. Atarabako tiriteroekin animazioa.
«16:00. Umeentzat festa plaza aldeko gurasoen eskutik; erreak jaitzeria eta ur jolasak eta zaldi gurdiaren txaluk, plaza ingurutik.
«18:30. III. patata tortilla eta ardo

dastaketa txapelketa. Bai Euskal Herriaren eskutik.
«22:00. Zeren sukua. Plaza aldeko gurasoen eskutik.
Abuztuak 22, igandea
«11:00. Euskal Herriko eta Munduko jolasak haurrentzat, Xaberen eskutik.
«12:30. Sokatira apustua. Ama direnak ez diren aurka. Ibarriko sokatira jaiaren eskutik.
«14:00. Herri bazkaria.
«Ondoren, Mahai-inguru luzea bertolonekin eta musikarekin. Bertan, Iker Zubeldia eta Sustrai Colina ariko dira. Parte hartuko duten musikariak bertan, Xantos eta Juan Ibarterak izango dira.
«20:00. Eneko Aritzaren lagunak taldekoek eusteko emanaldi eskalako dute.

Abuztuak 23, astelehena
«10:00. 3x3 futbol txapelketa jokoa. 10:00etik 13:30era, sailkapen fasea; 14:30etik 16:00etara, finala; 16:00etik 18:00etara, helduleku eta gurasoak.
«19:00. Danborrada entseguak.
«21:00. Hara ekarretan.
«22:00. Zeren sukua, plaza aldeko gurasoen eskutik.
«23:30. Ibarriko 30. Danborrada.
Abuztuak 24, asteartea
«16:00. Eskalada txapelketa, Ibarriko Gazte Asanbladaren eskutik.
«19:00. Kontzertuak.
Abuztuak 25, asteazkena
«18:30. Erromerria Bartola gusean.
«20:00. Bartolaren goiera.

Herriko bi koadrila nor baino nor

Amezketak » Bi koadrilen artean apustu berezia egingo dute hilaren 22an; gainerakoan, askotariko ekitaldiz osaturiko egitaraua prestatu dute.

Elbiaren jaitsierarekin eman ohi diote hasiera herriko jaiei Amezketan. Abuztuaren 21ean izango da hori, baina festagiroan bezperatik hasiko dira eta hilaren 25era arte ez dute etenik izango.

Ekitaldi ugari bezperatik sei egun dituzte festez gozatzeko. Horien artean bat nabarmendu nahi izan dute, bereziki antolatzaileek, igandean izango den herriko gazteen arteko apustua. «Ikusmina sortuko du eta ikusgarria izango da ziu». Hauek segan ariko dira eta baita korrika ere. «Bi koadrilen artean hitz egin zuten eta horrela sortu zen apustua egitearena», azaltzen dute Jai Batzordetik. Hilaren 22ko arratsaldean izango da herritar ugari bilduko dituen hitzordu berezia.

Ohiko egitaraua

Gainerakoan, egitarauak ez du aldatuta handirik izango beste urte-takoekin alderatuta. Zahagi ardoa, zahagi sagardoa, sagardo dastaketa eta txakolin dastaketa izango dira ia egunero, eta baita bazkari eta afariak ere. Hutsik egiten ez duten herri kirol eta bertso saioak ere egongo dira, eta noski, dantzaldiak ere bai.

Umeen egunean jokoak izango dituzte egun osoan, eta gauean herria mozorrotu egingo da, eta mozorro onenak saria ere jasoko du. Azken egunean paella lehiaketa ere egingo dute herritarren artean. Eta jaiez sei egunetan zehar nahikoa gozatu eta gero, agur esateko unea elbiaren entierroak jarriko du.



Aurten ere, txarangen doinuekin, dantzan ibiliko dira herritarrek, herriko kaleetan. HITZA

» EGITARAUA

Abuztuak 20, ostirala

- **11:30.** X. Pilota Txapelketako finalak.
- **14:00.** Bazkaria (beheko frontoian).
- **Ondoren.** Joku poteoa.
- **21:00.** Zahagi-sagardoa.
- **23:00.** Kontzertuak.

Abuztuak 21, larunbata JAIEN HASIERA

- **18:30.** Buruhandi eta txistularien kalejira jaiari hasiera emateko.
- **20:30.** Elbiaren jaitsiera.
- **21:00.** Zahagi-ardoa (Udalak ogia, ardoa, gazta eta kafea jarriko du).
- **23:30.** Ansorregi, Larrañaga eta Lutxordiorekin erromeria.

Abuztuak 22, igandea

- **12:00.** Txakolin dastaketa, Fernando Amezketarra plazan. Guraso elkarteok pintxoak salgai jarriko dituzte.
- **18:00.** Herriko gazteen artean apustu berezia.
- **19:00.** Motozerrarekin egurrezko irudiak egiten ikusteko aukera.
- **Ondoren.** Irudien zozketa.

- **20:00.** Harri zulatzaileak.
- **23:00.** Itzel taldearekin erromeria.

Abuztuak 23, astelehena UMEEN ETA MOZORROEN EGUNA

- **12:30.** Bizikleta igoera San Martinera.
- **13:00.** Umeen bazkaria.
- **Ondoren.** Umeentzat jolasak eta merienda.
- **16:00.** VI. Mus Txapelketa Larrunarri pilotalekuan (Izen-emaitea, 15:30etik 16:00etara egingo da, bikoteko 10 euro, eta bikotekide batek behintzat amezketarra izan behar du).
- **23:00.** Denok mozorrotuta, Kupa taldearekin dantzaldia.
- **Atsedendian.** Mozorroren sariaketa.

Abuztuak 24, asteartea SAN BARTOLOME EGUNA

- **10:00.** Diana txistulariekin.
- **11:00.** Meza nagusia, San Bartolome elizan.
- **12:30.** Herri kirolak Laja eta Landakandak alaiturik: Harriarekin

Miren Urkiola eta Etxeberria; aizkorarekin Mugerza eta Larretxea. Landarbidere ere harria altxatzen ariko da.

- **17:00.** Pilota partidak: afizionatuak eta profesionalak.
- **Iluntzean.** Laja eta Landakandarekin dantza egiteko aukera.
- **22:30.** Bertso saioa Altuna anaiak pilotalekuan: Anjel Mari Peñagarikano, Sebastian Lizaso, Amets Arzallus, Julio Soto eta Andoni Egaña. Gai jartzalea: Bixente Gorostidi.
- **21:00.** Lajarekin erromeria.

Abuztuak 25, asteazkena ELBIARI AGURRA

- **Goizean.** Sukaldaritza lehiaketa izango da.
- **14:00.** Paella prestatuko da Larrunarri pilotalekuan. Osagaiak eta sua parte-hartzaile bakoitzaren esku.
- **Ondoren.** Prestatutakoa jateko aukera izango da. Festa batzordeak ogia eta edaria jarriko du.
- **20:00.** Txaranga.
- **23:00.** Sagardo dastaketa txarangekin alaiturik.



Herriko gazteak, ia zoz festetan, gozatuz. HITZA

- **23:00.** Tximeleta taldearekin erromeria.
- **24:00.** Elbiaren entierroa. Lutoa ez ahaztu!

- **Jarraian.** Txekorraren zozketa.
- **Ondoren.** Tximeleta taldearekin dantzaldia, aurtengo festei agur esateko.



Promozio berria -Ibarra-

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta
Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com



-ELEKTRIZITATE INSTALAKUNTZAK
-ATEZAIN AUTOMATIKOAK
-ARGIZTAPENAK
-LANTEGIETAKO KONPONKETAK
-ARGINDAR KUADROAK

Paipz-Erreka, 5
20400 IBARRA

Bulegoa Tel. 943 67 58 78 - 639 72 42 60
Tallerrea Tel. 639 72 42 61



Pasa den urteko festetako irudiak. Herri krosa eta herritarrak sagardo proban parte hartzen. HITZA

Azkenak hoberenak izaten omen dira

Berrobi » Abuztuko azken txanpan kokatzen dira Berrobiko jaiak; aurtengorako sagardo dastaketa, herri afaria eta herri kirolak nabarmendu dituzte.

Abuztuan festarik festa ibili eta gero azken parranda Berrobik eskaintzen du, bertako festak baitira berantiarrenak. San Agustin jaiak abuztuaren 26tik 29ra ospatuko dituzte.

Egitarau osoa, betea eta anitza prestatu dute, baina izango diren ekitaldietatik Festa Batzordetik hiru nabarmenak dituzte, «izan ohi duten harrerarengatik». Bate-tik, lehenengo egunean, hau da, hilaren 26an arratsaldean izango den sagardo dastaketa: «Jende ugari gerturatzen da beti, oso polita izaten da, eta ziur gaude aurten ere arrakatsua izango dela». Trikitilarien doinuek alaituko dute, gainera.

Bestetik, bigarren eguneko, hau da, hilaren 27ko herri afaria azpimarratu du Jai Batzordeak: «Oso giro polita sortzen da urtero, herritar ia guztiak han biltzen baikara». Afariaren aurretik izango den ekitaldiak ere pisu handia du Berrobiko festetan, urte ugari baitaramatzate Trikitixa Txapelketa antolatzen. Gaztetxo ugari hartuko dute parte trikitiarekin, giro oso polita sortuz.

Goi mailako herri kirolak

Azken egunerako utzi dute aurten festetan nabarmendu beharreko ekitaldietako bat, izan ere, hilaren 29an Berrobik hartuko du Euskal Herriko Lehenengo Mailako Aiz-

kora Txapelketaren kanporaketetako bat. Aitzol Atutxa, Iñaki Azurmendi, Juan Jose Lopez, Jesus Mari Mujika, Floren Nazabal, Jose Mari Olasagasti, Joseba Otaegi, Jon Rekondo, Antonio Senosiain, Aitor Senosiain, Luis Txapartegi eta Jose Angel Zubiaga aizkolariak ariko dira nor baino nor. Hauek egin beharreko lana ondorengoa izango da: 54 ontzako bi enbor, 60 ontzako bi enbor eta 72 ontzako bi enbor.

» EGITARAUA

Abuztuak 26, osteguna JUBILATUEN EGUNA

- 11:00. Txupinazoa.
- 11:30. Herriko hildakoen aldeko meza.
- Ondoren. Jubilatuen hamaiketako.
- 12:30. Urreburuko gaztetxoaren pilota partidak.
- 18:00. Sagardo dastaketa lzer eta Alabier trikitilariekin.
- 11:00etatik 15:00etara. lzer eta Alabier trikitilariak.

Abuztuak 27, ostirala UMEEN EGUNA

- Goizean zehar. Puzgarriak.

- 16:00. Gaztetxoaren futbol txapelketa.
- 17:00. Umeen merienda.
- 18:30. Berrobiko trikitixa txapelketa.
- 21:00. Herri afaria.
- 24:00. Gabezin taldea.

Abuztuak 28, larunbata SAN AGUSTIN EGUNA, KOADRILEN ETA BIDE-ONA ELKARTEAREN EGUNA

- 09:30. Diana.
- 11:00. Meza.
- 11:00. Umeen toka txapelketa.
- 12:00. Koadrilen arteko paella prestaketa.

- 14:00. Bazkaria.
- 18:30. Alurr dantza taldea.
- Ondoren. Bertsolariak Bide-Ona elkartearen eskutik.
- 22:00. Frontis pilota partida: Amantegi-Altuna eta Urdaniz-Garmendia.
- 24:00. Laket taldea.

Abuztuak 29, igandea

- 09:30. Diana.
- 11:00. Berrobiko krosa.
- 18:00. Herri kirolak: Euskal Herriko Lehenengo Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa.
- 22:00etatik 01:00etara. Urarte trikitixa taldea.



Pasa den urtean bezala, herritarren bazkaria egingo dute aurtengo jaietan. HITZA

Mus txapelketa eta herri kirol saio interesgarria aurtengo jaietan nagusi

Goiatz » Zortzigarren eregingo dute harrera ona izan ohi duen txapelketa; Bidania eta Goiatz nor baino nor ariko dira herri kiroltan.

Ama Birjin jaiak ospatzen dituzte Goiatzen. Aurten, abuztuaren 13, 14 eta 15erako osatu dute festetako egitaraua. Suziriarekin hasiko dira jaiak abuztuaren 13ko arratsaldean, eta ondoren, herriko gaztetxoek ederki jostatzeko aukera izango dute. Gauean, herritarrek afarian bilduko dira trikitilarien doinuekin.

Bigarren eguna ekitaldiz beteaz izango da. Batetik, arrakasta handia izan ohi duen eta aurten zortzigarren urtez egingo duten mus txapelketa izango da. Edonork parte hartu ahaliko du, eta izena emateko 15:30etik 16:00etara bitarte frontoian agertu besterik ez du egin beharko. Hori bai, 30 euro ordaindu beharko dira bikoteko. Lau erregetara, bost hamarrekotara



Kultur Astean bezala, jende ugari bilduko da herriko plazan egingo duten sagardo dastaketan. HITZA

eta hiru usteletara jokatu dute. Sari potoloak izango dituzte zain: txapel dunek 500 euro eta txapela jasoko dute, bigarrenek 300 euro eta garaikurra, hirugarrenek 200 euro eta garaikurra, laugarrenek 100 euro eta garaikurra eta bosgarrenetik zortzigarrenera geratzen direnek 30 euro.

Ondoren, ederki jan eta edateko aukera izango da sagardo dastaketa egingo baitute, eta bertsolari eta erromeriarekin emango diote amaiera egunari.

Hirugarren eta azken egunean dantza emanaldia eta poteoa izango da eguerdian, eta arratsaldean herri kirol saio interesgarria izan-

go da ikusgai. Olasagasti eta Larretxea aizkolariak eta Irigoien eta Ostolaza harri-jasotzaileak ariko dira nor baino nor, eta Bidania Goiatzen aurka trontzan, korrika, txingekin, lokotxetan eta txingurarekin. Trikitixa doinuekin egingo dituzte aurtengo jaietako azken dantzak goiaztarrek.

» EGITARAUA

Abuztuak 13, ostirala

- 14:00. Suziriak eta ezkirlak.
- 17:00. Ume jolasak.
- Ondoren. Txokolatada.
- 21:00. Herri afaria trikitilarietara alaitua.
- Ondoren. Ansorregi ta Larrañaga trikitilariak.

Abuztuak 14, larunbata

- 16:00. VIII. Mus txapelketa, pilotalekuan.
- 19:00. Sagardo dastaketa (trikitilarietara alaitua). Zapiain eta Petritegi sagardotegiaren Pintxoak doan izango dira.
- 22:30. Bertsolariak: Iker Zubeldia, Uxue Alberdi, Amets Arzallus eta Sebastian Lizaso. Gai-jartzailea: Iker Iriarte.
- Ondoren. Izer, Alabier eta Lurturidio trikitilariak.

Abuztuak 15, igandea

- 12:00. Meza nagusia.
- Ondoren. Herriko dantzariaren emanaldia.
- Ondoren. Poteo herrikoia egingo dute.
- 19:00. Herri Kirolak: Aizkolariak, harri-jasotzaileak eta Bidania eta Goiazko gazteen arteko lehia.
- 22:30. Elustondo anai-arrebak trikitixa jotzen.

Aurtengo berrikuntza haurren trikiti jaialdia

Bidania » Herriko gaztetxoek eskutik, trikitixa jaialdia izango da hilaren 22an; askotariko ekitaldiak izango dira bost egunetan.

Goiazko festak amaitu eta astebertera, abuztuaren 21etik 25era San Bartolome jaiak ospatuko dituzte Bidanian. Bost egunetan zehar adin guztiei zuzendutako ekitaldi ugari izango dira herriko kiroltan.

Aurtengo egitarauan bada nabarmendu daitekeen ekitaldi bat, herriko haurren trikitixa jaialdia, hain zuzen. Ekitaldi desberdin eta berezi bat antolatu nahi zuten, eta gaztetxoek parte hartzearekin trikiti jai egitea erabaki dute aurtengoan.

Berrikuntza hori jaietako bigarren egunean izango da. Lehenengo egunean trikitixaz alaiturik egingo duten txikiteoa eta herri afaria azzimarra daitezke. Hurrengo egunean, trikitixa jaialdiaz gain, zaldi karrera, bertso saioa eta

herri kirolak izango dira ekitaldi nagusiak. Azken honetan herriko gazteen saioak izango dira ikusgai, trontzan, harri-jasotzen, aizkoran, ingudearekin, lokotx biltzen, txingetan eta korrika.

Astelehenean, bestalde, ganadu feria eta pilota partidak izango dira: Olano-Jaka eta Labaka-Artola; Apeztexea-Zinkunegi eta Urbietia-Aretxabaleta ariko dira aurrez aurre pilotan.

Azken egunetan, dantza saioak eta zaldi eta idi parearen erakustaldiak sortuko du ikusmin handiena.

» EGITARAUA

Abuztuak 21, larunbata

- 12:00. Suziriak eta ezkirlak.
- Ondoren. Txikiteo herrikoia trikitilarietara alaiturik (Baltzola).
- 18:00. Zezen txikiak.
- 20:30. Salbeak.
- 21:00. Herri afaria.
- Ondoren. Izer, Alabier eta Lurturidio trikitilariak.

Abuztuak 22, igandea

- 10:30. Meza nagusia.
- Ondoren. Herriko haurren trikiti jaialdia.
- 17:00. Zaldi karrera (eguraldi txarra eginez gero ez da izango).
- Ondoren. Herriko gazteen herri kirolak.
- 22:30. Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Amets Arzallus eta Iker Zubeldia. Gai-jartzailea: Arkaitz Zelaia.
- Ondoren. Imuntzo eta Beloki trikitilariak.

Abuztuak 23, astelehena

- Goiz osoan. Ganadu feria.
- 17:00. Ume jolasak eta txokolatada.
- 22:30. Pilota partidak.
- Ondoren. Laja II.a eta Narbaiza.

Abuztuak 24, asteartea

- 10:30. Meza nagusia.
- Ondoren. Herriko dantzariak eta helduentzako hamaiketakoak.
- 18:00. Herriko gazteen pilota partidak.
- Ondoren. Sagardoa eta pintxoak.
- 22:30. Bide Batez.

Abuztuak 25, asteazkena

- 10:30. Meza nagusia.
- Ondoren. Bola eta toka txapelketa eta helduentzako hamaiketakoak Sayaz elkartean.
- 22:30. Zaldia eta idi parearen erakustaldia.
- Ondoren. Kupela taldea.



Hilaren 22an, igandean, zaldi karrera egingo dute Bidaniako jaien barruan. HITZA



Kupela taldeak giro polita jarriko du azken eguneko gauean. IELORZA

Gure festetako oroitzapenak



Amezketako aspaldiko argazkia. Dantzariak herriko festetan. HITZA



1912ko San Bartolome jaietako irudia da hemen ageri dena; plaza beteta, dantzari begira. HITZA



Berastegiko jaietako irudiak. Goian aizkolariak eta behean txirindulariak. HITZA



Jaietan dantza emanaldiak ohikoak izaten dira. HITZA



Ikaztegiako jaietan dantzarien emanaldia pilotalekuan. HITZA

JAI EK GUNE BERRI BAT IZANGO DUTE



Leitza » Herriko eragile ezberdinek bultzatuta, karpa bat jarriko dute; honela plazaren osagarri izango da, ekitaldiak antolatuzko garaian.

San Tiburtzio herriko patrioiaren omenez, abuztuaren 7tik 15era bitartean ospatuko dituzte jaiak Leitza. Ohi bezala, jaiak gainean dituztela, eskean eta programak banatuz ohartaraziko dituzte herritarak.

Berezitasunen artean, aurten estreinakoz, plazarekin batera, herriaren festagune berri bat izango da. Leitza hainbat eragilek, txosna batzordeak bultzatuta, karpa bat jarriko dute Zinearen atzealdean,

orain arte, barrakak jartzen zituzten inguruan. Karpako eta plazako ekitaldiak elkarren osagarri izango dira. Hala, betiko egitarauko zenbait ekitaldi bertan txertatu dituzte.

Ohiko ekitaldiak, falta ezin direnak, beste berri batzuekin uztartu nahi izan dituzte Santiburtzioetan. Leitza-arentzat, ekitaldi gogoangarriaren bat, San Tiburtzio eguneko ezpata dantza da. Urtero, egun handian, eguerdiko hama-

bietan Aurrera dantza taldekoak dira ezpata dantza plazaratzen dutenak. Ikurrina lau haizeetara asintzen dute bertan, jendearen txaloak batzen zaizkiola.

Herri kirolak eta bertsoariak ere ezin dira falta Leitza jaietan. Hori dela eta, bertso saio interesgarria izango da abuztuaren 14an, iluntzean. Azken egunean berriz, ezkondu eta bikoteen egunean, eguerdian herri kirolak izango dira.

Entzierrero, goizero hainbat eta hainbat leitzarren hitzordu garrantzitsua izaten da. Baina aurten eguna argitzean ez ezik, iluntzean ere ikusi ahal izango dira zezenak herriko plazan. Oraingoan, berezi-

tasun gisa, abuztuaren 11n, goizaldeko ordu bietan zezenak eta txaranga izango baitira plazan.

Ohiko ekitaldiak berezi eginaz

Emanaldi eta ikuskizun asko, urtero errepikatzen dira, baina horrek ez du esan nahi beti berdinak direnik. Esaterako, abuztuaren 12an, ohi bezala Aurrera dantza taldekoen emanaldia izango da. Baina ez da besteetan bezalako izango. Oraingo honetan, dantza taldean aritutako belaunaldi ezberdinetako dantzariak elkartuko baitira, Larrain dantza elkarrekin dantzatzeko.

Bestetik, duela urte batzuk arrakasta izan zuen ikuskizunetako

bat berri ere izango da jai haue-tan: Zetzerria-rena hain zuzen ere. Hegazti harraparien abileziez gozatzeko aukera izango da, baita, hauek ukitu eta gertutik ezagutzeko ere.

Kataluniatik Leitza, giza dorrea osatzeko

Ikuskizun berritzaileen artean, Bartzelonatik datorren talde batek, giza dorre bat osatuko du. 110 lagun inguru etorriko dira Herrialde Katalanetatik, abuztuaren 14an, arratsaldean izango den emanaldia eskaintzera. Ondoren, herri afarian geratuko dira Leitza jaiak nolakoak diren hobeto ezagutzeko.

Ondo pasa santiburtzioak!

Leitza euskararekin: bitzak eta ekintzak.

LEITZAKO UDALA

GAZTAÑAGA Festak ongi pasa!

taberna

Tel.: 948 61 07 08 • LEITZA

ITURGINTZA LANAK • KALEFAKZIOA
ETA GASA • ZERAMIKA

gaztelu

LANDA BEHINON INDUSTRIALDEA • LEITZA
Tel.: 948 51 00 86 - Faxa: 948 61 06 56
e-maila: gaztelu@infonegoci.com

ARESOKO UDALA

Pesta zoriontsuak!

Aliprox

Elbarren, 71 • Tel.: 948 51 00 07
Elbarren, 20 • Tel.: 948 61 06 57

LEITZA

» SAN TIBURTZIOAK LEITZAN

Abuztuak 7, larunbata
REPARTO EUNE

- **12:30.** Poteoa gaiteroekin.
- **14:00.** Eskalarin bazkaria Aurre-
ran.
- **16:00.** Auzoz auzo Plazaola al-
dizkariaren banaketa trikitalari,
txistulari, akordeoilari eta gaitero-
ekin.
- **17:00.** Txirriindulariak industrial-
dean.
- **18:30.** Oxabi erromeri taldeare-
kin aldarrikapen kalejira.
- **20:00.** Karparen irekiera eta eki-
taldia.
- **00:00.** Kontzertuak Karpan:
Kantaflor, Lesviolentas eta DJ Tor-
ta y pegarekin.

Abuztuak 8, igandea
UMEN EUNE

- **08:00.** Diana txistulariekin.
- **11:00.** Umeen txupinazoa udale-
txetik eta ondoren hamaiketakoa.
- **Ondoren.** Aurrera Pilota Eskola-
ko gazteen partidak plazan.
- **11:30 - 14:30.** Puzgarriak, jokoak
eta bitxigintza, papiroflexia eta
aurpegi margoketa tailerrak ume-
entzat plazan.
- **16:30 - 18:30.** Puzgarriak.
- **18:30.** Aurrerako dantzari txi-
kieni ikuskizuna eta umeen inguru-
txo irekia plazan.
- **20:00 - 00:00.** Trikidantz tal-
dea. Ordu berean buruhandiak eta
gurpildun zenenak.

Abuztuak 10, asteartea
PESTA BEZPERA

- **11:00.** Koadrilen arteko Herri Ki-
rolak plazan.
- **14:30.** Elkartasun Kantu Bazka-
ria karpan, Kuxkuxtu txarangare-

- kin.
- **14:30.** Jubilatuen bazkaria.
- **18:00.** Txupinazoa eta Plazaola
Aldizkariko azalaren egileari sari
ematea.
- **Ondoren.** Incansables txaranga,
txistulariak, gaiteroak, buruhan-
diak, erraldoiak...
- **22:00.** Suzko zezena
- **23:00-00:00.** Garraxi taldea
plazan.
- **01:00.** Incansables txarangaren
erronda.
- **00:00-01:30.** Esne Beltza eta
DJ Patt karpan.
- **01:30-03:30.** Garraxi taldea
plazan.

Abuztuak 11, asteazkena
SAN TIBURTZIO EUNE

- **08:00.** Diana txistulariekin.
- **09:00.** Entzierroa eta behiak
plazan.
- **10:30.** Meza.
- **Ondoren.** Hamaiketako irekia
karrapen.
- **12:00.** Aurrerako Ezpatadantz-
ariak.
- **Ondoren.** Afizionatuen arteko
pilota partidak: Onsalo - Zabaleta
vs Jaunarena - Iriarte.
- **13:00.** Aurreratik Incansables
txaranga aterako da.
- **18:00.** Fanfarrea plazan.
- **19:00.** Herri kirolak plazan. Aiz-
kolariak: Arkaitz Olano eta Ruben
Saralegi; Ugaitz eta Aratz Muger-
tza; Eneko Saralegi. Harria jaso-
tzen: Inaxio Perurena, Josetxo
Urrutia eta Unai Bertiz.
- **Ondoren.** Goxokien banaketa.
- **19:30.** Incansables txaranga eta
buruhandiak.
- **20:30.** *Komuneko paperean* ize-

- neko poesia musikatu karpan.
- **21:00.** Leitzako Ingurutxoaa pl-
azan nahi duen guztiarentzakoa.
- **22:00.** Suzko zezena.
- **00:30.** Kontzertua karpan, Ma-
rianitox Blai taldearekin.
- **01:00.** Incansables txaranga
aterako da eta erronda plazan bu-
katuko du.
- **02:00.** Zezenak eta Txaranga
plazan.

Abuztuak 12, osteguna
PESTA BIARRENA

- **08:00.** Diana txistulariekin.
- **09:00.** Entzierroa eta behiak
plazan.
- **11:00.** Karpan, paella lehiaketa,
sardin eta hirugiharre jatea eta sa-
gardo dastaketa.
- **11:30.** Kukubiltxoren Txirikiz
ikuskizuna plazan.
- **13:00.** Aurreratik Incansables
txaranga aterako da.
- **14:00.** Karpan, paella lehiaketa-
ko sari banaketa eta bazkaria ber-
tan gelditua nahi duenarentzat.
Bazkalosteia euskal kantuekin alai-
tua eta Maite Aizpuruak lagundua.
- **17:30.** Zezenak plazan.
- **18:30.** Aurrerako dantzarien
emanaldia plazan.
- **Ondoren.** Goxokiak banatuko
dira eta Incansables txaranga ate-
rako da Aurreratik.
- **19:30.** Pilota partida profesio-
nal Amazabalen: Belloso - Oteiza
vs Olaetxea - Albisu / Olaizola I -
Barriola vs Bengoetxea VI - Beloki.
- **22:00.** Suzko zezena.
- **00:00.** Tximeleta taldea plazan.
- **01:00.** Incansables txaranga
aterako da erronda egitera.
- **03:00.** Leitzako Ingurutxoaa pl-

zan, nahi duen guztiarentzakoa.

Abuztuak 13, ostirala
GAZTE EUNE

- **08:00.** Diana txistulariekin.
- **09:00.** Entzierroa eta behiak
plazan.
- **11:30.** Goitiberak.
- **12:30.** Apar festa plazan.
- **13:00.** Aurreratik Incansables
txaranga aterako da.
- **14:00.** Gazte bazkaria Atekabel-
tzen.
- **17:30.** Plazan zezenak errekor-
tari eta kolunpioarekin.
- **18:30.** Gazte jokoak plazan.
- **19:30.** Gazte manifa.
- **19:30.** Frontiseko pilotarien par-
tidak Amazabalen.
- **20:30.** Kalejira aldarrikatzailea
Bonberenea txarangarekin.
- **22:00.** Suzko zezena.
- **00:00.** Incansables Txaranga-
ren kontzertu-emanaldia izango
da plazan.
- **01:00.** Kontzertuak karpan: Go-
vornors, Attikus Finch eta Itziarren
semea.

Abuztuak 14, larunbata
PESTA LAUGARRENA

- **08:00.** Diana txistulariekin.
- **09:00.** Entzierroa eta behiak
plazan.
- **12:00.** Zetzeria ikuskizuna pl-
azan.
- **13:00.** Incansables txaranga ate-
rako da Aurreratik.
- **18:00.** Castellors (Igaladatik).
- **19:00.** Bertsolariak plazan:
Maialen Lujanbio, Sebastian Liza-
so, Jon Maia, Amets Arzallus, Mi-
ren Amuriza eta Julio Soto.
- **Ondoren.** Goxokiak banatuko

- dira plazan.
- **19:30.** Incansables txaranga eta
buruhandiak.
- **21:30.** Suzko zezena.
- **22:30.** Herri afaria.
- **Ondoren.** Afalosteia eta kalejira
Incansables txarangarekin.
- **01:00.** Kontzertua karpan: Ko-
runba, Surfin Kaos eta DJ ta Txo.
- **Ondoren.** Karaokea.

Abuztuak 15, igandea
EZKONDU ETA BIKOTEEN
EUNE

- **08:00.** Diana txistulariekin.
- **09:00.** Entzierroa eta behiak
plazan.
- **12:00.** Herri kirolak plazan. Aiz-
kolariak: Jon Rekondo; Aitzol Atu-
txa; Mikel Zabaleta. Harria jaso-
tzen: Mikel Saralegi. Idi proba: Ina-
xio Telleriaren idiak eta harria,
Leitzakoa.
- **13:00.** Aurreratik Incansables
txaranga aterako da.
- **14:30.** Aurrerako Bazkideen
bazkaria.
- **18:00.** Bikote eta ezkonduen en-
tzierroa.
- **Ondoren.** Zezenak plazan.
- **19:00.** Ezkondu eta bikoteen In-
gurutxoaa plazan.
- **Ondoren.** Goxokien banaketa
eta Incansables txaranga.
- **21:30.** Karpan apart-merienda
multikulturala.
- **22:00.** Suzko zezena.
- **00:00.** Mariatxiak *Ciudad de*
Mexiko.
- **Ondoren.** *Pobredemi-a* Incansa-
bles txarangarekin.



Txistulariak eta dantzariak ere ez dira faltako aurtengo Santiburtzioetan; oraingoan gainera emanaldi berezia prestatu dute Aurrera elkarteko kideek. AURRERA

OGI BERRI
Dasta ezazu gure kalitatea!!!
Elbarren, 17 behea - LEITZA 31880

PERITZA TABERNA
Pesta onak pasa herrikoak eta bixitariak!
• Pintxoak
• Bokatak
• Plater konbinatuak
Tel.: 948 61 08 48 • LEITZA

TORREA HERRIKOA
Goizean eta gauetan
Marxak
JO
tel.: 948

ARRERA KE LEITZA
Taberna irikita egunero!!!
Pesta onak pasa!!!
Elbarren 12
Telf/Fax: 948510187
Sakelekoa: 608789293
aurrerake@hotmail.com

Astiz Anaiak Zurgindegia
PESTA ON ONAK PASA DITZAZUELA
Klase guztietako egur lanak, ateak, lehioak, farimak, armairurak eta kristaldegia
Tel.: 948 61 06 06 / 948 51 02 85 • Landa industrialdea 13.pab. • LEITZA

Pestarako aitzakiarik ez dute aurten aresoarrek

Areso » Herriko elkarte ezberdinen artean, herritar guztiei zuzendutako ekitaldiak antolatu dituzte abuztu honetarako.

Herri txikia, baina festa oso gustuko duena da Areso. Horren adibide da Amabirjinaren omenezko jaierarako prestatu duten egitaraua. Abuztuaren 14an, arratsaldeko 17:30ean botako dute festen hasieraragartzen duen suziria. Eta hortik aurrera, musikak, jaiek, eta jai giroak hartuko du herria.

Jaiek antolatzeaz arduratzen den batzordeak, herriko hainbat eragile eta elkartek dute hitza. La-

rrera eta Pake-toki elkarteek, Guraso elkarteak, Lagun artea gazteen elkarteak eta Usoa, ehiztarienak, hartzen dute parte bileretan, eta denek ekarpenekin, jai herriko, parte-hartzaile eta aitzak antolatzen dituzte. Honela, bertako kirolari, trikitilari, abeslari eta dantzari egiten diete tartea.

Aurtengorako antolatu dituzten ekitaldi gehienak, urteak daramatzate eta jada nahiko finkatuta daude. Duela hiru urte inguru hasi ziren Koadrilen eguna ospatzen, eta egun, jende gehien biltzen duen ekimenetako bat da. Amabirjin egunean, 11:00k aldera elkartuko dira gazte eta ez hain gazteen taldeak eta txarangak lagunduta, herriko auzo ezberdinetara bide-

ratuko dira. Hauetan, koadrila bakoitzak bere auzo izango du, eta han hamaiketako prestatzeaz arduratuko da. Modu honetan, festa herri guztira zabaltzea lortzen dute. Gero, plazara itzultzen dira denak eta paella jatea egiten dute.

Herri bazkaria da Aresoko jaientan, arrakasta gehien duen ekitaldietako. Ia herri guztia elkartzen da bertan, 250 bazkaltiar baino gehiago elkartzen baitira urtero. Pake-toki eta Larrea elkarteak arduratzen dira dena prestatzeaz. Txandakatu, batzuetan txekorra jartzen dute jateko, eta besteetan zikiroa. Oraingoan, azken hau katzen da. Bazkaldu eta gero, bertso-pilota izango da eta sagardo dastaketa.



Kusmin handia sortzen dute Aresoko festetan herri-kirolek. HITZA



Koadrilen egunean herri guztian barrena zabaltzen dute jaiak. HITZA

» ARESOKO PESTAK

Abuztuak 14, larunbata PESTA BEZPERA

- **17:30.** Suziria botako da pestei hasiera emanez.
- **Ondoren.** Kalejira egingo da herrian barrena herriko trikitilariekin.
- **18:00.** Entziero txikia haurrentzat herri osoan zehar.
- **Jarraian.** Haurrentzat jokuak plazan Guraso Elkarteak antolatuta. Ondoren arratsaldekoa haurrentzat.
- **19:00.** Patata tortilla lehiaketa plazan.
- **20:30.** Herri afaria plazan.
- **23:30.** XXV. Mus txapelketa herrikoia udaletxean.

Abuztuak 15, igandea AMABIRJINAREN EGUNA

- **09:30.** Diana herriko txistulariekin.
- **11:00.** Meza Nagusia, bertan Udal ordezkariak lagunduz herriko dantzariak arkua egingo dutelarik.
- **Ondoren.** Ohiko hamaiketako eskainiko du Udalak plazan.
- **12:00.** Herriko haur eta gazte-koen dantza emanaldia plazan.
- **13:00.** Pilota partidak plazan.
- **18:00.** Aizkolariak plazan.
- **Ondoren.** Aresoko ingurutxoak.
- **Arratsaldean eta iluntzean.** Giro arte dultzaineroen emanaldia plazan.
- **00:00.** Dantzaldia Izer eta Alabier trikitilariekin.

Abuztuak 16, astelehena KOADRILA EGUNA

- **09:30.** Diana herriko trikitilari-ekin.
- **11:00.** Kalejira herrian barrena txarangak lagunduta. Koadrilek hamaiketako jarriko dute herriko auzo ezberdinetan.
- **15:00.** Paellada erraldoia koadrila guztientzat plazan.
- **Ondoren.** Gillermo Seguioren txiste emanaldia.
- **18:00.** Jokoak koadrilentzat.

- **Ondoren.** Trontza apustua: Mikelatxo eta Juana Mari, Itxaso eta Uxueren aurka.
- **21:30.** Bokadilo jatea plazan.
- **00:00.** Dantzaldia Imuntzo eta Beloki taldearekin.

Abuztuak 17, asteartea UMEEN EGUNA

- **09:30.** Diana herriko txistulariekin.
- **11:00.** Gaztelu puzgarriak, tailer ezberdinak eta jokoak haurrentzat.
- **13:00.** Herriko gaztekoen arteko pilota partidak plazan.
- **14:00.** Haurrentzat bazkaria plazan Guraso Elkarteak antolatuta.
- **16:00.** Plater tiraketa herrikoia Usoa elkarteak antolatuta.
- **18:00.** Patxin eta Potxin pailazoen emanaldia plazan.
- **19:00.** Entziero txikia haurrentzat herri osoan zehar.
- **Ondoren.** Tximeleta taldearen emanaldia.

- **22:00.** Herri afaria plazan Guraso Elkarteak antolatuta.
- **00:00.** Dantzaldia Tximeleta taldearekin.

Abuztuak 18, asteazkena

- **09:30.** Diana herriko trikitilari-ekin.
- **11:30.** Haurrentzat betiko jolasak Guraso Elkarteak antolatuta.
- **14:00.** Herri bazkaria plazan Pake-Toki eta Larrea elkarteek antolatuta eta Amets Arzallus eta Ilker Zubeldia bertsolariek alaituta.
- **18:00.** Bertso-pilota partida.
- **19:00.** VII. Sagardo dastaketa, txistorra eta sardina erreekin. Freskagarriak egongo dira haurrentzat Gizarte Zerbitzuen laguntzarekin.
- **Bitartean.** VIII. txapel jaurtiketa plazan.
- **21:00.** Bideo emanaldia.
- **00:00.** Dantzaldia Trikidantz taldearekin.
- **Ondoren.** Jaiei amaiera emateko DJ Bull-en emanaldia.

ADUR

Pintxoak, kaxuelak...
Otarkekoak,
plater konbinatuak...

Tel.: 948 510 105

Giro ezin hobea,
festa earrak pasal!!

Galdaragintza Burdindegia

LEITZELARREA, S.L.

PESTA
ZORIONTSUAK
OPA
DIZKIZUE

Landa ind. 20.atea • LEITZA • Tel./faxa: 948 51 05 98

MUSUNZAR

OSTATUA TABERNA
JATETXEA LOGELAK

Pestak
ondo pasal!

Elbarren, 14 • LEITZA • Tel.: 948 51 06 07 • 948 51 04 75

BIXIGARRI

frutadenda

Bertako frutak eta barazkiak

Baratzeko landareak, ardoak, olioak... Elbarren, 2 - LEITZA

LIBURUDENDA PAPERDENDA

Prentsa-Liburuak
Faxa-Fotokopiak
Zerbitzu berria:
Mota guztietako
dokumentuen artisa-
enkuadernaketa

Tel./Faxa: 948 51 01 46 • Elbarren, 17 • LEITZA

Olaia Bazar

Tel.: 948 510 437
Elbarren, 36-37 behea
LEITZA

MIKEL ARTOLA

Gaur egungo bizimoduak eta gizartearen baldintzek hala behartuta, gazterik gabe geratzen ari dira gure eskualdeko baserri asko. Oraindik ordea, badira joera orokorraren kontra bide honi heltzen dioten gazteak, eta gainera, ez euskaldunak bakarrik. Azken hilabete honetan bi gazte atzerritar ari dira lanean Alto eta Orendain herrietako Berakoetxea eta Egia baserrietan, Simon Lehner Altzon, eta Sebastian Brunner Orendainen, 18 urterekin Austriatik hona praktikak egitera etorritako lehen-gusuak. Ekainaren 14an iritsi ziren gure eskualdera, eta bertan ariko dira lanean irailaren 21a arte.

Nekazaritza-eskolan

Esan bezala, praktikak egitera etorri dira Austriatik, Wicseburg hiriko Francisco Josephinum nekazaritza-eskolako ikasleak baitira biak. Francisco Josephinum Austriako nekazaritza-eskola garrantzitsuena da 800 ikaslerekin, eta bertan hiru urtez ikasten jardun eta gero etorri dira hona. Orain, 14 astez Austriatik kanpora praktikak egitea tokatzen omen zaie, eta gero beste bi urtez aritu beharko omen dute ikasten, beraz, bost urte luze-ko ikasketetan murgilduta daude Simon eta Sebastian. Unibertsitateko karrera dirudiela aipatuta, hori «bost urte horiek eta gero» egin daitekeela argitu du Sebastianek, baina lagunaren hitzekin batera, «ikasketen zailtasuna ere» aipatu du Simonek, eta ez duela unibertsitateara sartzeko asmo handirik. Bost urteak bukatzean azterketa bat gainditu beharko omen dute, bertan erakutsi beharko dutelarik ordura arte zer ikasi duten. Hala ere, urtero egiten dituzte azterketak, teoriko nahiz praktikakoak, eta aurrepegi serioarekin azpimarratzen dute «oso zailak» direla. Zer ikasten duten galdetuta, «denetik» erantzun dute biak: «matematika, hizkuntzak, animaliekin lotutako ikasgai praktikakoak». Aurrez azaldu bezala, ez dira unibertsitate ikasketak, baina edozein karrera bezain luzeak dira, nahiz eta goiz hasten direnez 20 urterekin bukatuko dituzten.

Zergatik Euskal Herrira?

Praktikak egiteko hainbat toki dituzte aukeran, hasi Alemaniatik eta Euskal Herriraino. Aukera egiterako garaian kontuan hartzen dutenez galdetuta, «hizkuntzaren garrantzia» azpimarratu dute biak, hori omen da hona etortzeko izan duten arrazoia nagusienetakoa. Austrian Alemaniera hitz egiten dutela diote, eta pixkanaka ingelesa eta espainiera bezalako hizkuntza handiak ikasten hasten direla. Eurentzat «oso garrantzitsua» omen da menderatzen ez duten hizkuntza batean trebatzea, eta hemen horretarako aukera omen dute. Hala eta guztiz ere, badakite Orendain eta Altzon jendeak euskaraz egiten duela, eta hitz bat edo beste behintzat ikasiko



Austriar gazteak baserriaren atarian. MIKEL ARTOLA

Ekainean hasi eta irailera arte Austriatik etorritako bost gazte ariko dira lanean gure eskualdeko baserri banatan. Praktikak egitera etorri dira, eta «oso gustura» omen daude hemen.

Austriarrak gurean



Simon eta Sebastian abereen artean. MIKEL ARTOLA

Alto eta Orendain aldean dabilen edozeinek ikusiko ditu Egia eta Berakoetxeakoei laguntzen, beste edozein gauzetan bezala, arituz ikasten baita baserriko lanetan. «Han guretzat ohikoak ez diren gauzak ikusi eta ikasi ditugu aste hauetan, ni bestelako lanetan aritzen naiz etxean, eta hemen belarretan eta behiekin nola aritu behar den ikasi dut besteak beste», azaldu du Simonek. Sebastianek, Egiako abelburu kopuru handia aipatzen du, bere etxean dituzten baino gehiagorekin lan egiten ohi-tzen hasia baita dagoeneko. Honez gain, hemen erabili behar izan dituen makinekin ohitu gabea dagoela azaldu du Simonek, «esate baterako, hona etorri arte ez nuen segadorarik erabili, gu beste lan batzuetan aritzen garelako».

Austriatik Tolosaldera

Austriatik gure eskualdera aldaketa nabarmena izango dela pentsatu, eta hango eta hemengo kontuez galdetuta, «gauza askotan antzekoak» direla erantzun dute biak. Bai han eta bai hemen lana egin behar dela diote. Baina, antzekotasunak antzekotasun, «lana egiteko moduan» aldea badagoela ere onartu dute. Beraien etxe-ko inguruak «nahiko lauak» direla diote, nahiz eta «beste ingurune batzuetan» hala ez izan, eta horrek «zenbait erraztasun» ematen dituela lana makina handiekin egiteko. Hemengo jendeaz, berriz, oso jendejatorra dela diote biak aho batez, «oso ondo» tratatzen dituztela etxean, eta bestela ere lagun bat baino gehiago egiteko aukera izan omen dute. «pare bat parranda ere bai», aitortu dute irribarrez.

Hala eta guztiz ere, etxe-koak faltan botatu dituztela eta, laster bisi-tan etorriko omen zaizkie astebe-terako.

Etorkizunera begira

Baserriak etorkizun beltza duela esan ohi da, eta Simonek eta Sebastianek ez dute azken hamarkade-tako gainbehera ukatzen, «hemen bezala han ere gauzak ez doaz ondo, urteak aurrera joan ahala gero eta zailagoa da bertatik dirua irabaztea». Baina, hala eta guztiz ere, biak dute lurrak eta abereek emandakotik bizitzeko esperantza eta asmoa. Badakite horretarako asko ikasi beharra dagoela aurretik, eta horretan ari dira buru-belarri. «Egunen batean gure etxeetako lanak gure esku geratuko dira», dio Simonek. Gainera, Simon eta Sebastian ez dira eskualdean dauden bakarrak, Villabona, Aldaba eta Anoetan ere bai baitira beste hiru lagun

Bertakoak ere gustura

Simon eta Sebastian, ordea, ez dira gustora dauden bakarrak. Berakoetxea eta Egiakoek ere gustura hartu dituzte dituzte etxean, eta ez da harrizkoa. Uda guztian zehar bi gazte hauen laguntza izango dute lanerako, seguruenik haien falta sumatuko dute hemendik jo-atean.

dute hemendik alde egiterako. Herri txikia izanagatik, ba omen zuten Euskal Herriaren aditzaera hona etorri aurretik, gainera «lehen-go urtean eskolako ezagun bat, Philip, egon zen Berakoetxen, eta hark eman zigun hemengo berri», azaldu du Simonek.

Bizitzeko modu bat

Hasieran azaldu bezala, gaur egun ez da ohikoa gazteek baserri-ko bizimodu ateratzeko aukera egitea, baina Sebastian eta Simon buru-belarri ari dira horretarako prestatzen. Aukera honen arrazoia euren etxean dagoela adierazi du Simonek: «gu nekazaritza bizi gara gaur egun ere, frutak ekoizten ditugu». Sebastianek, berriz, behiekin egiten dutela lan dio, eta handik sortu zaiola afizioa. Bien hitzetan ez da inongo zalantzarik antzematen, eta egindako aukera oso kontzientea dela dirudi. Nekazaritza-eskolan «hiru bide» omen dituzte aukeran: kanpoko lanari lotua bat, kimikari lotua bestea, eta azkena teknologiarekin zerikusia duena. Bai Simonek eta baita Sebastianek ere, lehenengo bidean jarria dute arreta, eta hara bideratzen dituzte hautazko ikasgaiak, hemen egingo dituzten praktikak barne.

Ikusiz eta ikasiz

Uda izan arren, eta oporren tanke-ira izanagatik bi gazteek duten ibi-lerak, lanera etorri direla argi dute.

Villabonako martxa abestuz hasi da jaia

Villabona » Eresargi abesbatzakoen eskutik ekin diete festei; bateletan, gutxiarik, baina, garaile anoetarrak izan dira.

ERREDAKZIOA

Eresargi abesbatzak, txarangak eta herritarrek Villabonako martxa abestuz eman diete hasiera herriko jaiari. 12:00etan plaza jendez gainezka zegoela jaurti zuten festen hasiera iragartzen duen suzuria. Aurten, ekitaldiko protagonista, herriko abesbatzakoak izan dira, 25 urte bete baitituzte.

Behin jai hasita, herriko presoak eta falta direnak gogoratuz, sagardo trago bat hartu zuten hainbat herritarrek. Gero, txarangaren atzetik kalejiran joan ziren Ori ibaiaren ertzer. Han batel estropadak izan ziren. Anoetakoki talde

Villabonako Onddo Asanbladakoen aurka. Erlojuaren aurkako proban, lau ziaboga egin behar izan zituzten ontziek. Horretarako denbora gutxi, Anoetako talde batek, eta Onddokoek behar izan zuten. Hala, finalerako sailkatu ziren, eta hemen, Anoetakoak izan ziren garaile, bost minutu eta zazpi segundoko denborarekin. Etxeko-ek zazpi segundoren abantaila aterazieten.

Eguerdiaren plazan, 400 lagunetik gora elkartu ziren bazkari herrikoian. Bakoitzak bere aldetik jatekoa eman zuen, eta eguzkipean, bapoi jan zuten. Arratsaldean, kirol jarduerak izan ziren nagusi, pilota, frontenis eta areto futbol.

Gaur ospatuko dute jaietako egun handia, Santio, goizean, sokamuturra eta herri krosa izango dira. Gisa honetan, San Inazio egunera bitartean, jaiak atsedenek ez du izango Villabonan.



Eresargi abesbatzakoek eman zieten hasiera jaiari; gero batel estropada jokatu zuten Ori ibaian. E. MAIZ

Leitza » Aste guztian zehar urteurrena ospatzen aritu dira, eta atzo, bazkariarekin, eta musikarekin eman zieten bukaera hauei.

ERREDAKZIOA

Atzo amaitu zituzten Atekabeltz gaztetxearen urteurrenaren ospakizuneko ekitaldiak. Goizean, herriko plazatik kalejiran atera ziren txistulariekin batera, eta Gaztetxera joan ziren. Han txupinazoa bota zuten eta hamaiketako egin.

15:00ak alderako berriz, paella erraldoia zain zuten. 50 lagun inguru elkartu ziren bazkaltzera.

Eskua bete urte egin ditu aurten, Leitzako Atekabeltz gaztetxeak

Arratsaldean berriz hip hop erritmoez hartu zuten gaztetxea. Gauen, Zopilotes Txirrius taldekoen kontzertua izan zen.

Lehen Korto Lehiaketan etxeok irabazle

Ostiral gauean egin zuten Lehen Korto Lehiaketako proiektzioa. Azkenean, bederatzitan aurkeztu zituzten txapelketara. Altsasuko bokstek, Tolosako batek eta Leitza-ko hiruk.



Paella erraldoi bat sukaldatu zuten atzo eta gaztetxean bertan jan. E. EZBIZA

Garaileak Leitza-koak izan ziren. *Amodio urratuak* izena zuen laburmetrai sarituak. Tebistako testigantzen saio horietako bat parodiatu nahi izan zuten bertan. Hala, alde batetik, burua ia galdua zuen amona bat agertzen zen, eta bestetik, folkloriko konpultsiboaren sindromea zuen lagun bat. Tartean, Biblia eta produktu kimikoen inguruko iragarkiak ere ikusi zitezkeelarik. 90 lagun inguru elkartu ziren Atekabeltz-en laburmetraiak ikusteko, eta beraiek izan ziren, irabazlea nor izan erabakitzeko bozkatu zutenak. Hala, Gazte Asanbladakoak oso gustura geratu ziren lehen aldiz antolatutako lehiaketak izan duen erantzunarekin, eta aurrera begira, berritoe egi-tea pentsatzen dute.

EIZMENDI ARMATEGIA
BIROLDENDA

 ONDO PASA JALETANI! Kirol gaiak konpontzeko lantegia Aukera handia eskopeta eta kartutxotan

Berría, 19 • Billabona
Tel.: 943692623 • Faxa: 943693044

BRONTXILLO
Harategia Itsaskide
Tel.: 943696823
Santio, 4 Villabona
Gora Santio Jaiak!

Bidaia Agentzia
bidaide
Erniobe, 6 behe VILLABONA
943 69 26 93

Ondo pasa festak!

berria bekak 2010

NORENTZAT:

- Unibertitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **zortzi beka**, horietako bat, bideo informatiboak lantzeko.

Ezaugarriak:

- Bederatzi hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoain duen egoitza nagusian edo ordezkartzetan

Zuzenketa-itzulpen gintza arloa: **beka bat**.

Ezaugarriak:

- Hamabi hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAK Andoain duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko azken eguna: 2010-09-08
Eskaera egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean dago eskuragai

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**



Ugalde, Dorronsoro, Olano eta Uribarren herritarrez inguratuta. Agurra dantzatu zieten. E. MAIZ



Zinta moztu ostean, herritar guztiak plazara sartu ziren. Txikienek parke berria ere estreinatu zuten. E. MAIZ

Inauguratu dute herriko plaza berria

Baliarrain » Herritarrekin batera, Markel Olano Diputatu Nagusia, Rafa Uribarren Diputatua eta Florentino Ugalde Etorlurreko gerentea izan dira.

ENERITZ MAIZ

Egun handia izan zuten atzokoan baliarraindarrek. Azken urteotan egin den obrarik garrantzitsuenetakoa inauguratu zuten, herriko plaza berria. Ekitaldian, Baliarraingo alkate Martzelino Dorronsoro eta beste zinegotziekin batera, Foru Aldundiko ordezkariak izan ziren. Markel Olano Ahaldu Nagusia, Rafa Uribarren Landa Ingurunearen Garapen Departamentuko Diputatu eta Florentino Ugalde Etorlurreko gerentea.

Politikariei, txikienek jarri zieten zinta. Moztu ostean, guztiak plazara sartu eta agurra dantzatu zieten. Jarraian, lau ordezkariak kioskora igo ziren. Dorronsoro alkateak, esker hitzak izan zituen: ondoan izan dituen udal taldeko kideei, langileei, enpresakoei, Foru Aldundikoei... Eta ekitaldira bildu ziren herritarrei «barkamena» eskatu zien, obrak iraun duten bitartean jasan dutenagatik. Baina era berean «eskerrak» eman zizkien egindako ekarpenengatik.

Herri guneak, urteetan autoen joan-etorriak jasan behar izan ditu. Eta aparkaleku bezala ibilia

izan da, haurrek ere jolaserako ibili izan duten herriko plaza. Orain, Baliarraingo herri guneak, itxura guztiz berritua du. Guztia berritu dute eta oinezkoen gunea izatera pasa da. Plazan bertan, udaletxearen aurreko aldean, kiosko bat jarri dute. Errepidea atzeko aldetik desbideratu dute eta aparkaleku berriak ere egin dituzte Landagipuzkoa 32 programaren barruan. Plaza berrituak haurrentzako lekua ere badu, parke txiki bat ere jarri baitute. Eta atsedean hartzeko aulkia ere badira. Alkateak esan bezala, herri guneak «segurtasunean eta lasaitasunean» irabazi du. Horregatik eman zioten «lehentasuna» proiektu honi.

Markel Olanok «zorianak» eman zizkien herritarrei eta Landagipuzkoa 32 proiektuaren zergatia azaldu zieten. Gipuzkoako 1000 biztanletik beherako herriek urteetan izan dituzten baliabide faltei, honelako proiektuak bultzatuz irtenbidea eman nahi izan die teta adierazi zuen.

Egin diren obrak ikusteko, buelta bat egin ostean, plazan bertan hamaiketako egin zuten.



SARIDUNAK

① Afaria

Billabonako Oinkari dantza taldeak antolatuta, **uztailaren 25ean**, Euskal Jaiaren baitan, **gaueko 21:00etatik aurrera**

Ramon Olasagasti Aiestaran (Tolosa)
Aritz Larreta Bereziartua (Amezketza)



② Abentura

Bizi Bizirik Larraitzen zabaldu berria duen **Txindokiko Itzala** parkerako

Angel Mari Munduate Artola (Tolosa)
Manoli Jauregi Tolosa (Alegia)



③ Sarrerak

Gipuzkoa **Indoor Kartingek** Tolosan zabaldu duen **auto zirkuiturako** (irabazle bakoitzarentzat bana).

Larraitzen Ezeizabarrena Jauregi (Tolosa)
Jon Alberdi Urrutia (Berrobi)



④ Sarrerak

Errenteriako **Txikikaia** haur parkerako

Amaia Balerdi Tolosa (Tolosa)
Eider Amundarain Goikoetxea (Alegia)
Amaia Goikoetxea Etxeberria (Tolosa)
Bernardo Collado Muñoz (Tolosa)
Maitane Arraiet Garmendia (Alegia)



Niessen merkataritza zentroa
943 107 888
www.txikikaia.com

HITZA jarriko da irabazlearekin harremanetan

harpidedunen
TXOKOA hitza



21°
16°

GOIZA	LAINOTUA
ARRATS.	LAINOTUA
BEROENA	20°
HOTZENA	15°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 118. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leizaldea beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



Urte askoan lñigo!

Jesukristoren adina, eta gainera haurtxo jaiotz berria etxean, aurten bai benetako jaiotza ospatzeko moduan. Aita lñigo, ama Agurtzane eta semetxo Sugaarrekino ondo pasa eta beste asko bete. Ama eta anai losuren partetik.



Zorionak!

Ane Peña (Irura). Din-dan kanpaiak, txin-txin txoriak, Ane zorion festak direnean... Etxekoan muxurik goxoa zure lehen urtebetetzear.



Zorionak!

Izei (Anoeta). 27an 2 urte. Muxu goxoak gure bihurritxoari familia guztiak.



Zorionak!

June Agirre (Lizartza). Etzi 7 urte.

KINDEGLA
Kasubi
Bilabona

ondo pasa!
Ernioea 3
Billabona
Tel.: 943 69 83 75

Lizartza

Etxebizitza libre beten abentaila guztiak, baita saltzeko eskatasuna ere; zuziatzen zain egon gabe eta kalitateko akabarekin, etxebizitza tasatu beten prezioan.

Etxebizitza libreak tasatuen prezioan

- Hiru logela, garajea, trasterokua, terraza
- 198.334€ + I.T.Z. (33.000.000 pto+I.T.Z.)
- Logelak, egongelak eta sukaldeak erabat karposidatuek
- Finantzaketa ematekoan
- Inbentario bitaina
- 2010eko abuztuaren 8a baino lehenago egindako erreserbak sukaldeko altzariek muntaturik jasoko dituzte

636 666 147
946 175 709

www.lizartza.com

MUNDUAN DAGO ZURE ETORKIZUNA

elduaien

ONDO PASA JAIAK
www.elduaien.com

Villabonako festetan ere zuekin!

XIKER

943 69 40 01
Ernioea, 19 • Villabona

ABENTURA HASI DA...

OSIA EZATO JAI
TRINIDAREN MAGALAN

10:00-14:00
15:00-18:00

Abenturaren Zela
943 100 947/943 847 200
www.trinidadabentura.com